# ttipi ttapa

435

2006ko azaroaren 30a • XXVI. urtea




**www.ttipi.net egunkari digitala** 04

Euskal kazetaritzan aitzindari izan zen ttipi-ttapa edizio elektronikoa osatuorduan. Orain, web-orri berrian, egunero sareratzen dira berriak bideo eta testu formatuan.



**Jon Rekondo leitzarra 2. mailan txapeldun** 29

Azaroaren 17an jokatu zen Doneztebeen Nafarroako 2. mailako aizkolari txapelketaren finala eta Jon Rekondo leitzarra jaun eta jabe izan zen.




03 **Goizuetako Gaztetxeak 15 urte**


LIGATZEAREN ZIENTZIA ETA ARTEA
hitzaldi antzeztua
Ligatzea artea da; musika, antzezpena, literatura... Ligatzea, hainbat disziplina ukitzen dituen zientzia da; geografia, fisika, matematika, biologia... baina, batez ere, ligatzea komunikatzea da eta komunikaziorako ezinbestekoa da tresna egoki bat edukitzea: HIZKUNTZA
ABENDUAREN 14AN/ortzegunarekin
arratsaldeko 19:30ean
LESAKAKO UDAL LIBURUTEGIAN
ABENDUAREN 15EAN/ortziralarekin
arratsaldeko 19:30ean
BERAKO KULTUR ETXEAN


Eguberri on
1945az geroztik
MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.
E-mail: baztan@maglur.org
babeslea:
BAZTANGO MAGNA DKT

# ttipi ttapa

435

2006ko azaroaren 30a • XXVI. urtea



## www.ttipi.net egunkari digitala 04

Euskal kazetaritzan aitzindari izan zen ttipi-ttapa edizio elektronikoa osatuorduan. Orain, web-orri berrian, egunero sareratzen dira berriak bideo eta testu formatuan.



## Jon Rekondo leitzarra 2. mailan txapeldun 29

Azaroaren 17an jokatu zen Donezteben Nafarroako 2. mailako aizkolari txapelketaren finala eta Jon Rekondo leitzarra jaun eta jabe izan zen.

# 03 Goizuetako Gaztetxeak 15 urte



## DATUAK...

• «15 urtez herriari bizia emanez» izenburupean hamabosgarren urteurreneko ospakizunetan dabiltza Goizuetako Gaztetxean.

• Urte osoan hilabetero ekitaldiren bat antolatu badute ere, azaroaren lehen larunbatean egin zuten ospakizunik handiena. Gaztetxean lanean aritu diren guzien argazkia, bazkaria, kontzertua eta beste hainbat kontu izan zituzten.

• Ibai Zubiri da Goizuetako Gaztetxeko dinamizatzailea.



ARGAZKIA: NAIARA AROTZENA

**Ibai ZUBIRI** *Goizuetako Gaztetxeko dinamizatzailea*

# «Koadrilen arteko harremana asko hobetu da Gaztetxeko lanari esker»

Aitor AROTZENA

**Nola sortu zen Goizuetako Gazte Asanblada eta Gaztetxea?**

Bi erakunde dira, baina beti nahasian ibili gara eta berdina da. Orain dela 15 urte garai hartako gazteek biltzeko beharra ikusten zuten, rock kontzertuak antolatzeko... Lokala eskatu zioten udalari eta udaletxe azpian lokala eman zioten. Gero, berritze lanak egin behar zituztela eta, garai bateko zinea, Tifanitxo, utzi zieten. Zulo handi bat zegoen eta berritze lanak egin behar ziren. Gazteek, obran udalak gastatu behar zuen dirua Gaztetxearentzat eman eta beraiek moldatuko zutela proposatu zuten. Beheko aldean taberna, lehenbiziko pisuan egoteko lokala eta bigarrenean ganbara dago.

**Zer eman dio Gaztetxeak Goizuetako gazteei eta orohar herriari?**

Gauza asko. Garai batean kontzertu fuerte batzuk antolatu ziren; gaur egun saiatzen gara gazteentzat eta gazte ez direnentzat gauzak antolatzen, umeentzat, helduentzat... Herriko koadrila guziak gaztetxetik pasatzen dira eta elkarren harteko harremana ere asko hobetu da.

> «Udalak lokala uzten digu eta gero dena autogestioaren bidez eramaten dugu, lan eginez tabernan ateratzen dugunarekin»

**Zein aldaketa nagusi izan dituzue Gaztetxean 15 urte hauetan?**

Hasieran aritu zirenak, batez ere gaztetxea moldatzen aritu ziren. Gero, beste kuadrila bat sartu zen eta duela sei bat urte gure belaunaldikoak. Gazte pila bat pasatzen da eta antolatzeko formula magikorik oraindik ez dugu harrapatu... Beti izaten dira laubost lagun gehien mugitzen direnak eta besteek laguntzen dute. Koadrila ezberdinak pasatu dira eta, era ezberdinekin, nola edo hala aurrera atera gara. 15 eta 23 urte arteko 40-50 gazte inguru ari gara orain.

**15. urteurrena ospatzen ari zarete urte osoan...**

Hilabetero-hilabetero ekintzaren bat egin dugu, baina fuerteena azaro hasierakoa izan zen: goizean saiatu ginen Gazte Asanbladatik pasatutako guziak biltzen eta argazkia ateratzen, gero bazkaria egin genuen eta bazkal ondoren Gaztetxearen 15 urteen inguruko bideo emanaldia egin zen, argazkiekin, elkarrizketekin... Arratsaldean jolasak, triki-poteoa eta gauez, Eraso eta Pim Pam Pumekin kontzertua. Abenduaren 16an, Leitza eta Goizuetako Gazte Asanbladen Topaketa eginen dugu hirugarren urtez, baina aurten Leitzan suertatu da.

**Urtero errepikatzen dituzuen ekitaldiak ere antolatzen dituzue...**

Eguberrietan, Guraso elkartearekin batera Olentzero eta Mari Domingiren etorrera antolatzen dugu eta Urtezahar gauean Txupito festa Gaztetxean. Txinoko festak, feriatan ere fandango txapelketa prestatzen dugu, herriko festetako taberna eta kontzertuak, iñauterietako karroza lehiaketa, mendi martxak...

**Gaztetxe eta udalen arteko harremanak normalean ez dira onak izaten, baina zuek ez duzue kejarik...**

Alde horretatik, pribilejiatuak garela esan dezakegu: guri udalak lokala uzten digu eta gero dena autogestioaren bidez eramaten dugu, tabernan ateratzen dugun gure diruarekin...




ARGAZKIA: WWW.TTIPI.NET

**www.ttipi.net helbidea klikatu eta honelako portada aurkituko du internautak. Gero, bakoitzak aukeratuko du irakurri nahi duen atala edo ikusi nahi duen bideoa.**

**Euskal kazetaritzan aitzindaria izan zen ttipi-ttapa bere edukiak Internet bidez mundu osora zabaltzen (1996). Rikardo Arregi Kazetaritza Saria ere jaso zuen horregatik 1997an, «Komunikabideen Berrikuntza Saria». Geroztik, ordea, ahalegin handienak telebistari eskaini zitzaizkion eta azken urteetan utzi xamarra zegoen ttipi-ttaparen web-orria. Orain, nortasun propioa duen egunkari digitala jarri du abian Ttipi-Ttapa Fundazioak, taldeko aldizkari eta telebistaren osagarri bihurtu dena. Egunero-egunero testu, argazki eta ikusentzunezko edukiez gain, internautari interakzio aukera ugari eskaintzen zaizkio www.ttipi.net webgunean.**

WWW.TTIPI.NET EGUNKARI DIGITALA

# Egunero telebistako laburpenak, berriak eta bertze hainbat informazio

**Aitor AROTZENA**

1996ko udan jarri zituen ttipi-ttapak bere edukiak lehen aldiz sareen sarean, Internet-en. "Ongi etorri ttipi-ttaparen Internet-eko ediziora". Horrelaxe hasten zen 1996ko uztail hasieran proba gisara munduratu genuen lehen edizio elektronikoaren agurra. Gaur eguneko mundua nekez uler daiteke Internet edo posta elektronikorik gabe, baina duela hamar urte ezezagunagoak ziren, gure inguruan bederen. Ordurarte, irakurleekin nahiz berriemaileekin telefonoz, eskutitzez edo faxez izaten genituen harremanak posta elektroniko bidez ere gauzatzen hasi ziren.

## Euskararen erabilerarako mundu berriak

Ttipi-ttapa izan zen, gainera, euskal prentsaren munduan edizio elektronikoa osatu zuen lehen komunikabidea eta halaxe aitortu zitzaion 1997ko



Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian. Aurkeztutako 208 lanen artean "Komunikabideen berrikuntza" atalelko saria eskuratu zuen ttipi-ttapak. Sari banaketan aipatutakoaren arabera, *«hedabideetako lana euskaraz burutzeko berrikuntzarik handiena eta eraginkorrena egin duenari eman diote»*. Epaimahaiaren ustez, *«euskal prentsa amaraun-mundu berrian sartzeko bidea ireki du ttipi-ttapak: nolabait esateko, aldizkari nafarrari zor diogu euskal kazetaritza amaraunean, Internetean sartu izana. Eta ahaleginak neurtzea egoki ez ezik bidezkoa ere badenez, azpimarratzekoa da toki aldizkari bat izatea urrats hau ematen lehena gure artean»*. Ttipi-ttaparen lanari esker, euskararen erabilerarako mundu berriak eskuratu ditugula ere uste zuen Rikardo Arregi Sariko epaimahaiak.

Beraz, indarrez hasi zen ttipi-ttaparen ibilbidea Internet-en, baina egia aitortzeko, azken urteetan alde batera utzi xamarra zegoen. Edizio horrek bere mantenu lana behar izaten du, eta aldizkaria dela, telebista dela, eguneroko lanean murgiltzearen ondorioz, denbora gutti eskaini zaio web-orriari. Baina edozein komunikabiderendako Internet-en orria izateak duen garrantziaz jabeturik, aurten esfortzu berezia egin du horretan ttipi-ttapak.



## Ainara MINDEGIA *Web orriko koordinatzailea*

**Nolako harrera izan du ttipi-ttaparen web-orriak?**
Uste baino hobeki erantzun du jendeak. Orain arte ez da inon publizitatu webgune berria dugula, ez da inon ezagutzera eman, eta halere, internauta batzuk bilatu dute. Probatze fasean sarean jarri eta berehala 40 lagun erregistratu dira erabiltzaile gisara, eta egunero 90-100 bisitari izaten ditu orriak.

**Web-orriak lekua kentzen dio aldizkariari edo telebistari, edo osagarri gisara erabiltzen du jendeak?**
Ez, bi komunikabide horien osagarria da. Egunero, goiz-goizetik berriak ikusteko aukera ematen du web-orriak, hamabostekaria etxera ailegatu edo telebistaren arratseko emisioari esperatu beharrik gabe. Web-orria leku guzietara ailegatzen da.

**Zein laguntza izan du ttipi-ttapak web-orria osatzeko?**
Acesible enpresak diseinatu du orria eta bere egitura eta ttipi-ttapako langileok arduratzen gara edukiak eguneratzeaz, eguneroko lana eskatzen baitu horrek.

*"Formalki aurkeztu gabe egon arren, egunero 90-100 bisitari izaten ditugu"*

**NORTASUN ETA BIZI PROPIOA DU, ALDIZKARI ETA TELEBISTATIK APARTE**

Orain, aldiz, biziberritua eta itxuraberritua dator ttipi-ttaparen edizio elektronikoa, **www.ttipi.net** helbidean. Lehenbiziko web-orriarekin konparatuz, aldaketak begi bistakoak dira: orduan, ttipi-ttapa aldizkariaren edukiak sarera bolkatu egiten ziren, bertzerik gabe. Orain, aldiz, webguneak nortasun propioa du eskaintzen dituen hainbat eduki eta zerbitzuei esker, eta gainerakoan, telebista eta aldizkariaren osagarri egokia da. Beraz, nahiz eta ttipi-ttapa aldizkarian ez agertu, web-orrian irakur daitezke hainbat berri. Gaur bertan gertatzen den albistearen jarraipena egiten ahal da ttipi-ttaparen web-orrian. Bertze aldetik, ttipi-ttapa telebistaren eguneko albisteen laburpena ere ikus daiteke bideo formatuan. Honela, telebista-seinalea berez Bortziriak, Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranako zenbait herrietan bakarrik ikusten bada ere, laburpen hori eskualdeko gainerako herrietan ez ezik, mundu zabalean ere ikus daiteke.

Honekin batera, kultur agenda osatua eta erabil erraza ageri da, eta internautak bere jakinarazpenak bidal ditzake webguneak dituen interakzio aukerak baliatuz.

Albiste berrienekin batera, ttipi-ttaparen ale zaharrak ere kontsultatzen ahal dira hemerotekan, herrika edo bilatzailea erabiliz. Baserriko prezioak, gastronomia errezetak, eguraldia eta bertze hainbat zerbitzuk osatzen dute webgunea.

## WEB-ORRI INTERAKTIBOA




**Orain www.ttipi.net webguneko dendak eta tresnak baliatuz, Merkatu Ttikia, Agenda, Eskelak edota Urtebetetzeak sailetako testuak eta argazkiak Internet bidez bidal daitezke.**

Eguneko berriak errepasatu edota aldizkariaren eta telebistaren edukiak irakurri eta ikusteaz gain, gure web-orrian sartzen den internautak informazioa osatzen ere lagun dezake, informazioa, agendarako datuak, urtebetetzeak, merkatu ttikiko iragarkiak eta bertze hainbat kontu bidaltzen ahal baitu. Horretarako, segurtasun neurri gisara, erregistratu egin behar da lehenik. Horrela, bada, interakziorako aukera ugari eskaintzen du web-orriak, ttipi-ttaparekin kontaktatzeko, berriei buruzko iritzia eman eta iruzkinak egiteko, berri propioak sortu eta Internet bidez zabaltzeko...

Internautari, web-orria bisitatzeaz gain, doan erregistratzeko aukera ere ematen zaio. Hori eginez gero, albiste-boletina jasoko du posta elektronikoz. Baina ttipi-ttapa idatzia etxean jaso nahi eta oraindik harpidedun ez denak ere, badu hori egiteko aukerarik.

Ttipi-ttapak merkaturatzen dituen produktu ezberdinak erosteko modua ere badu webguneak. Momentuz, azken urteotako besta eta iñauterietako bideoak erosten ahal dira. Guzi hauek egiteko wwww.ttipi.net helbidea klikatu eta web-orriak berak agintzen dituen urratsei segitzea bertzerik ez duzu.

**ttipi-ttapa**

HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.net**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia eta Sandrine, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 25 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**


## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Igantziko zenbait bizilagunen artean ezinegona sortu da aglomeratu planta baimena eman baitzaio Excavaciones Orsa S.L. enpresari

Igantziko zenbait bizilagunen artean ezinegona sortu da aglomeratu planta baimena eman baitzaio Excavaciones Orsa S.L. enpresari. 2006ko urriaren 11n egindako bileraren ondoren, derrigorrezkoa da jendaurrean jakinaraztea udalak ez zuela bere ekinbidearen berri eman 2005eko martxotik 2006ko urrira, Excavaciones Orsa S.L.k sustaturiko espedientearen haritik, aglomeratu asfaltikoko planta bat jartzeko. Denbora honetan espedientea aitzindu eta 2005eko uztailean planta jartzen hasten dira, alkatearen hitzezko baimenarekin eta 2006ko urtarrilean gelditu zen zenbait bizilagunen protestak zirela eta. Bien bitartean, bizilagunak harat honat ibili behar izan dugu egindakoari buruz jakiteko eta aldi berean, ondorioen berri izateko. Udalak modu ilun batean jokatu du, baita Nafarroako Gobernuak ere eta onartezina da administrazio pubikoa baita, eta beti ahal bezain modu txukunean lan egin behar du, eta gainera ez-legezko jarduerak izan direla ere aipatu behar da. Hala, udalean 8 idatzi aurkeztu dira argibideak eskatuz: Hauez gain, muntaia bertan behera uzteko eskaera eginez bertze idatzi batzuk egin dira otsailaren 10ean, martxoaren 10ean, martxoaren 31n eta maiatzaren 3an, eta gainera, plantaren instalazioak prezintatzea eskatu zen. Egindako guztia jakinarazteko eskaera egin zen eta planta desmuntaiaren eskaerari ezezkoa eman ondoren, errekurtsoa aurkeztu zen. Alegazioak ondorioztatu ziren egitasmoaren argibide publikoaren espedientean, modu horretan eskatutako lizentziari buruzko argibide ezegokiak emateko eta osoko bilkurak ezezkoa emateko. Soilik espedientearen tramitazioarekin jarraitzeko, tramitera onartuko da eskaitzaileen audientzia behin sustatzailearen txosten osagarrian aurkeztuta eta udal txostena eman ondoren eta Nafarroako Gobernuaren espedientea baino lehen. Udalak, plantaren desmuntaia ukatzeaz gain, ez ditu aurkeztutako alegazioak aintzat hartu eta ez du 2006ko martxoa eta urria bitarte egin duenaren berri eman, ezta urriaren 11ko bileran argibiderik eman. Azkenean 2006ko urriaren 27an egindako osoko bilkuran lan eta ekinbide lizentziak eman zaizkio Excavaciones Orsa, S.L. enpresari. Plantaren desmuntaia dela eta, errekurtsoak aurkeztu dituzte aurka dauden bizilagunek. Udalak bilera horretan ezkutatu egin zuen Nafarroako Gobernuaren lan publiko departamentuak 2006ko irailaren 19an egindako txostenaren zati bat, non, planta ezartzeak NA-4020 errepidean ibilgailu handitzea ekarriko zuen, N-121-A errepidetik 3,4 puntu kilometrikoa arte, hau da, Igantziko errepidea arte, eta honek arrisku larria suposatzen du bideko segurtasunean, errepideak dituen ezaugarri mugatuak kontutan hartuz. Era berean, lurraldearen antolamendu, etxebizitza eta ingurumen departamentuak otsailaren 10ean eta apirilaren 4ean, 2 idatzi aurkeztu ziren, eta azken honi, udaletxean aurkeztutako alegazioak atxiki zitzaizkion, eskaera eginez jakinaren gainean egon zitezen egiten ziren nahiz ematen ziren txostenen inguruan. Baina departamentuak ez du inolako argibiderik eman, nahiz eta instalazioa baimendu zuen abuztuan.

Hau dela eta, sinatzen dugunok errekurtsoak aurkeztu ditugu udaleko osoko bilkurak hartutako akordioaren aurka eta aldi berean, Nafarroako Gobernuko ingurumen departamentuak emandako baimenaren aurka joko dugu. Horrez gain, publikoki salatu behar dugu udalak ez duela galdeketa egin nahi izan herrian, eta Orsak 10 lanpostu, urteko 48.000 euro eta hilabeteko 20 Tona asfalto debalde izatearen aitzakipean egin nahi izan dute guztia. Sinatzaileek ere galdetzen dugu zergatik ezkutatu nahi izan diren gauzak afera honetan eta ez dakigu noiz hasi ziren harremanetan, ezta enpresarekin egin dituzten bilerak ere. 2005eko irailean galdegin zen instalazioari buruz, eta erantzuna izan zen ez zegoela deus horri buruz. Geroztik jakin zen 2005eko uztailean hasi zela muntaia eta abendurako aunitz aitzindua zegoela eta orain martxan dagoela.

**Lurdes ZUGARRAMURDI**
**(Igantzi)**

### Igantziko Udalaren erantzuna

Orsaren lantegia Igantziko harrobiaren barrenean paratzearen aurka dagoen plataformak azken asteotan egin dituen adierazpenetan errandakoa ikusita, zenbait xehetasun egitera behartuak gaude, komunikabieetan gai honi buruz eginen ditugun azkenekoak izanen direlakoan.

Urtea aitzinera joan ala, hilbeltzan geneuzkan susmoak poliki-poliki baieztatzen joan dira. Orduan, gai hau publikoki hain modu zakarrean kaleratu zutenean, kanpainaren arrazoi nagusiak ekologikoak ziruditen, kea batez ere (gogoratuko duzue, "Igantzi ke beltzik gabe"). Bada, denbora pasatzen joan den neurrian arrazoi horiek aitzaki zirela baieztatu da, ez baitira dagoeneko inon aipatzen. Pentsa, plataformak bere izena ere galdu du bidean! Talde honentzat arazoa ez da lantegia, geu gara talde honen arazoa. Bertzela ez lirateke ibiliko, dabiltzan bezala, herriko bazter guzietan gu iraintzen eta mingainak inongo kontzintziarik gabe dantzatzen. Ez dute egundaino astirik galdu gure ohore eta sinesgarritasuna hankapean ibiltzeko, euren helburuei bidea erraztu nahian. Aski garbi dago. Geu gara jomuga nagusia. Eurek jakinen dute zergatik. Gure batasunak eta zuzen jokatzen ari garenaren konbentzimenduak lagundu digute aitzinera segitzen.

Azken agerraldian dokumentu eta data aunitz aipatzen dute. Ez gara hemen hasiko denak banbanaka aipatzen. Bertzerik gabe hauxe erranen dugu: aipatzen duten eskaera bakoitzeko dokumentazioa xintxo-xintxo entregatu zaiela baieztatzen duen errezibo bana dagoela Herriko Etxean, talde horretako kideren batek sinatua, noski. Gaur egun, Herriko Etxean dagoen dokumentazio guzia daukate eskuetan.

Urriaren 11n, bilera informatiboa egin zenean, trafikoari buruzko Nafarroako Gobernuaren idatzi bat gorde genuela aipatzen dute. Dokumentu hori egun horretan berean ailegatua zen Herriko

# • IRAKURLEAK MINTZO •

Etxera, eta Nafarroako Gobernua eta Orsaren arteko afera baldin bazen ere, Herriko Etxearekin deus ikustekorik ez zuena, bilerara eraman genuen eta beratz solastu egin ginen. Bertze guziekin bezalaxe, aste baten barrenean eman zitzaien dokumentu horren kopia bat ere.

Bertzeak bertze erraten digute, 10 lanpostu, 48.000 euro/urteko herriarentzat eta 20 tona asfalto dohainik hilabetero ematea ez dela haintzat hartzeko moduko eskaintza. Eta erraten dute eskaintza honen gibelean modu mixerablean gordetzen garela! Eurek eta guk lanpostuetaz ditugun iritziak hagitz ezberdinak dira nonbait! Norberaren etorkizun ekonomikoa ziurtatua izanda ere, nola solasten ahal dira hain arin 10 langileren eta euren familien etorkizunaz? Herrian langabezirik ez dagoela argudiatzen dute, baina guk ziur badakigu dozena erdi bat lagun badirela lanean hasteko prest. Gainera, zer gertatuko litzateke gaineko langileak Lesaka, Bera, Etxalar edo Arantzatik hartuko balituzte? Ez al gara gu Arcelor, Savera, Fundiciones edo Alcora lanera joaten? Ba al du gai honetan hain zorrotz jokatzeko legitimitaterik Lesakan edo Beran bere zortzi orduak sartu eta herrira goxo-goxo itzultzen denak, lesakarrei edo beratarrei ondorio guziak utzita? Konparatzekoak al dira, urrutitik baldin bada ere, Arcelorrek Lesakan duen inpaktoa eta asfalto plantarena Igantzin? Non eginen lukete lan talde honetakoek eta euren familikoek lesakarrek eta beratarrek eurek bezala jokatu izan balute? Norberak erantzun ditzala galdera hauek.

Plataforma horretako zenbait kide Herriko Etxean egonduak dira. Konturatu al dira Igantziko urteko aurrekontuan zer suposatzen duten 48.000 euroak? Badakite zer erraten ari diren?

Herriko Etxe honek ez omen dio herriari galdeketarik egin nahi izan. Zeinen ongi! Urte osoa daramagu errekurtso eta alegazioz inguratuak, urte guzia darama Herriko Etxeak gai honengatik blokeatua eta deus egin ezinik, papera gora eta papera behera, eta orain piztu zaie bonbilatxoa, enpresak baimen guziak lortu dituenean eta erreklamazioekin nahi dutena lortu ez dutenean!. Inguruko zein herritan egin behar izan da galdeketa enpresa bat paratzeko? Gu al gara horrelako erabaki bat hartzeko gai ez garen bakarrak? Eta gai honekin lotuta, arazoak hain modu zibilizatuan eta demokratikoan moldatzearen aldekoak baldin badira, zergatik ez dute gurekin INOIZ elkarrizketa bat eduki nahi izan? Noizbait paratu diegu solasteko oztoporik?

Urte hasieran agindutako konpromezu guziak bete ditugu. Lantegiak ingurugiroan izan zezakeen eragina neurtzeko aditu baten txosten independientea eginen genuela erran genuen eta Ecolan enpresari eskatu genion. Zergatik ez dituzte txosten honen ondorioak inon aipatzen?

Herriaren aitzinean bilera bat eginen genuela ere agindu genuen. Oraintxe aipatu dugun txostena egin eta teknikoak agendan tarte bat egin bezain abudo bilera deitu genuen urriaren 11rako. Bagenekien nora eta zertara gindoazen, baina hantxe eman genuen aurpegia. Ez zen bizipen xamurra izan.

Orain dela 40ren bat urte hasi zenetik etenik gabe handitzen joan da harrobia. Saia gaitezen herritar guziok behin betiko mugak finkatzen eta herriari orain arte eman ez dioten konpensazioa aldarrikatzen. Lan horretan ari gara gu aspaldian.

Azkenik, lasaitasuna eskatu nahi diegu herritarrei. Lasai egon zaitezkete, zeren ez dugu orain arte hartu eta ez dugu hartuko ere GURE OSASUNA arriskuan paratuko duen erabakirik, ez eta urrundik ere.

Gure helburua herriaren onerako lan egitea izan da beti eta berdin segituko dugu legealdia akautzen den arte.

**Igantziko Udalbatza.**

## Arrano elkarteari elkartasuna

Joan den urriaren 24an, astearteareki, Guardia Zibilak Arrano elkartea goitik behera miatu zuen. Gure aburuz, ekintza horren zentzua argia da; herritarren eskubideen aurkako erasoa izan da. Horren aitzinean, Lesakako Euskara Batzordeak, zera nahi du adierazi:

- Arrano Elkarteak ekarpen nabarmena egin dio eta egiten dio Lesakako kultur bizitzari. Halaber, euskararen alde dihardu, eta hori hitzez eta ekintzez erakutsi dute urteotan.
- Arrano Elkarteak iraunkorki eta modu aktiboan parte hartzen du Lesakako Euskara Batzordean, herri mailan euskararen normalkuntza helburu egiten diren ekimenetan bere ekarpena eginez.
- Arrano Elkartearen jarduera jendaurrekoa da, eta zilegia. Horren kontrako erasoak herritarren eskubideen erasotzat jotzen ditugu.

Hortaz, Arrano Elkarteak egindako eskakizunak geure egiten ditugu.

- Arrano Elkarteak jasan duen erasoa salatzen dugu.
- Arrano Elkarteak bere ibilbidean Lesakan egin duen ekarpena kontuan hartuz, bere lana eta jarduera babesten ditugu.

**Lesakako Euskara Batzordea.**











ABELTZAINTZA

# Bortzirietako azienda onenak saritu zituzten Lesakako feria egunean

## Guzira 173 abere aurkeztu ziren, gehienak zaldiak

Aitor AROTZENA

173 azienda aurkeztu ziren azaroaren 23an Lesakan ospatutako Bortzirietako ferietan. Aspaldiko urteetan ez zen halako azienda pilarik bildu plaza inguruetan, baina aurten goizez egin zuen eguraldi bikainak abeltzainak animatu zituen, nonbait.

Azkeneko urteotako ohiturari eutsiz, gehienak zaldi abereak ziren, 141.

Guzi horien artean, Xarutako Beñat Oronozek eskuratu zuen 125 euroko lehen saria eta Nafarroako Kutxak emandako txapela. Bigarren eta hirugarren sariak, 95 eta 50 euro, Arantxeneko Javier Almandozek etxeratu zituen.

Behi aziendetan, 25 buru aurkeztu ziren plazara eta sari gehienak Berara joan ziren. Izan ere, Begibeltzeneko Jose Antonio Igoak, suizen kategorian lehendabiziko hiru sariak eraman zituen, 190, 160 eta 100 euro. Haragitako behien artean ere Begibeltzenekoak irabazi zuen lehen saria eta azienda onenari Nafarroako Kutxak emandako txapela. Bigarren saria Iriberriko Jon Muñoak eskuratu zuen, baina hirugarren saria ere Begibeltzenera joan zen.

Holandesa arrazako bi behi aurkeztu zituen Tellegiko Esteban Irazokik eta berak eraman zituen 190 eta 160 euroko bi lehendabiziko sariak.

Aharietan, azkenik, 7 abere aurkeztu ziren. 35 eta 25 euroko bi lehendabiziko sariak Etxalarrera joan ziren, Intzekobordako Josetxo Ariztegik eskuratu baitzituen. 15 euroko hirugarren saria Berako Patxi Gortarik eskuratu zituen.





ARGAZKIAK: AITOR A.

**Goitiko argazkian, hainbat sari eskuratu zituen Begibeltzeneko Jose Antonio Igoa beratarra ageri da. Beheitian, holandesa arrazako bi lehendabiziko sariak Tellegira eraman zituen Esteban Irazoki .**

Hiritarraren 012 telefonoa
Udala zure zerbitzuan
• Kulturako eta kiroleko agenda • Udal informazioa
• Kultur eta astialdi jarduerak • Ziurtagiriak eta ordainagiriak
• Zerbitzu Orokorrak • Gizarte zerbitzuko laguntzak
INFO-LOCAL
Nafarroako Gobernua

BERA

# Herriko Etxea berritzeko obra lehiaketara atera da

## berakoudala.net webgune berria aurkeztu du Udalak



ARGAZKIA: GOIKO

*Lagun Haundiak elkartea sortu da*

**Herriko 170 bat erretiratu biltzen dituen Lagun Haundiak elkartea sortu berri da. Zazpi lagunek osatzen dute zuzendaritza batzordea eta Mertxe Retegi da presidentea. Jubilatuentzako ekitaldiak antolatuko dituzte.**

**Amaia eta Ainhoa**

Azaroaren 15ean egindako batzarran, Udalak aho batez Herriko Etxea berritzeko obra lehiaketara ateratzea erabaki du. Kontratazio honi buruzko iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian jarriko da. Bertzalde, zortzi hilabeteko kontratua denez, prezioak ez dira berrikusiko.

### berakoudala.net webgune berria

Azaroaren 22an egin zen Udaleko webgunearen aurkezpena. Hemendik aintzinerat, www.berakoudala.net helbidean Udalaren informazio guztia aurki dezake erabiltzaileak. Webgune dinamikoa eta berritzeko erraza da, Code&Syntax Eibarko enpresaren Udalerria plataforman oinarritua, Zope software librean egina. Webgune elebiduna da (euskara-gaztelania), eta turismoko atalak frantsesera eta ingelesera itzuli dira. Webguneak bortz atal nagusi ditu: Bera (herriaren gaineko informazio guztiarekin), Udala (udalaren gaineko informazio zehatza eta eguneratua), Turismoa (turismo bulegoa, bisitak, jatetxeak…), Albisteak (azken albisteak agertuko dira eta nahi duenak e-postaz edozein albiste bidali dezake) eta Egutegia (deialdiak, bilerak, agenda…).

### Nafarroa Oinezeko irabaziak

Azaroaren 15ean, heldu den urtean Bianan eginen den Nafarroa Oinezaren aurkezpena egin zen Iruñean. Iñaki Castillo, Labiaga ikastolako lehendakaria eta Maider Senper zuzendaria bertan izan ziren. Labiaga Ikastolak Nafarroa Oinezen balorazio positiboa egin du. Oraindik kontuak ez dituzte itxi eta jarritako helburua lortzea espero dute: 300.000 euro. Aurrikuspen baikorrenek 360.000 euro lortzea espero zuten eta orain kopuru hori hurbilago dago. Lortutako diruarekin banketxeekin daukaten 600.000 euroko zorraren zati bat kitatuko dute. 11 urtetan Nafarroako Gobernutik dirulaguntzarik jaso gabe egon ondotik, DBH ordaintzeko 2,4 milioi euroko inbertsioa egin du. Nafarroako Gobernuarekin lortutako akordioarekin ikastolak DBHko 1. eta 2. mailak legeztatzea lortu du baina 3. eta 4. mailak emateari uko egin behar izan dio.

### Ikaspilota 2006

Labiaga eta Lesakako Tantirumairu ikastolako ikasleak Eztegara pilotalekuan bildu ziren azaroaren 22an. Ikaspilotak, kirol eta jolas hau ezagutzea du helburu eta egun honetan ikasleek pilotarekin lotutako joku ezberdinak eta partidak jokatzen dituzte.

### Bertso saioa igandean

Euskara Batzordeak bertso-saioa antolatu du. Abenduaren 3an, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean izanen da. Manolo Arozenak gaiak jarri eta Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu, Xabier Silbeira eta Julen Zelaieta arituko dira. Sarrera 5 eurotan eskuratu daiteke.

### 1936an jaiotakoen kinto bazkaria

Abenduaren 8an ospatuko da Zubiondo jatetxean 1936. urtean jaio zirenen kinto bazkaria. Beran sortu edo bizi diren kintoak beraien bikotearekin joan daitezke. Bazkarira joan nahi duenak abenduaren 2a baino lehen 948630073 telefonora (Manolo Igoa) edo jatetxera deitu beharko du.









LESAKA

# Baztan-Bidasoako gazte topaketa herrian eginen da abenduaren 9an

## Gazte aisialdi eskaintzaren gabeziak salatu nahi dituzte

Aitor AROTZENA

Baztan-Bidasoako Gazte Topaketa abenduaren 9an eginen da «Eskualdeko gazte antolakuntzaz jai herrikoien bidean» lemarekin. Lan horretan ari dira Bortziriak, Baztan eta Malerrekako gazteak, alde batetik eskualdeko gazteen arteko harremanak sendotu eta bertzalde, gure eskualdean gazte aisialdi eskaintzaren gabeziak salatu eta alternatiba eskaintzeko.

Eguneko egitarauari dagokionez, goizeko 10etan diana izanen da txistulari eta gaiteroekin. 10:30ean gazte gosaria izanen da. 11:00etan hitzaldia Tasio Erkiziarekin: Gazte mugimenduaren sorrera. 12:00etan txalaparta eta kirikoketa tailerra eginen da. Eguerdian, gazte bazkaria eta ondotik kantaldia izanen dute. 18:00etan 3x3 futbol partidak jokatuko dira. 20:30ean triki-bertso poteoa eginen da eta gauean kontzertua, Doneztebeko Erru gabe, Berako Himen eta Erratzuko Ufestuek taldeekin.

Antolaketa lanean ari diren Bortzirietako gazteek adierazi dutenez, *«ez ditugu nahi Euskal Herria onartzen ez duten jaiak, ezta indibidualismoan oinarritzen diren jaiak, ezta emakumeak zapaltzen dituzten jaiak. Horregatik eta sistemak inposatzen diguna diskotekak eta drogak direnez, gazte alienatu eta pasibo bat lortu nahiean, guk ezetz erran nahi dugu. Posible da jai herrikoi parekide eta partehartzailea ospatzea eta posible da sistemari alternatiba eskaintzea eta horregatik ospatuko ditugu gazte topaketak».*



ARGAZKIA: XABI PUMAR

***Benito Tainta eta Inaxi Pikabeak 60 urte ezkondurik***

**Morronekobordako Benito Tainta eta Inaxi Pikabea 1946ko azaroaren 19an esposatu ziren. Egun berean, baina 60 urte beranduago, Diamantezko Ezteiak ospatu zituzten. Meza ondotik, bilobek bereziki egindako letrarekin abestutako Aurreskua dantzatu zieten lurre eta Aiert bilobek eta gero Irubiden bazkaldu zuten. Argazkian, seme-alabekin eta suhi eta errainekin kontent agerdi dira Inaxi eta Benito. Aunitz urtez!**

### Iñigo Rodriguez Nafarroako txapeldun pintxazoan

Azaroko lehen asteburuan, titulu ponposoa eskuratu zuen Iñigo Rodriguezek, Nafarroan lehen aldiz egin den pintxazo txapelketa irabazi baitzuen. Guzira 220 lagunek parte hartu zuten Iruñeko Cafe Iruña, Catachú ostatua eta Kasino Berrian jokatutako Defindei.com txapelketan. Musaren entzuterik ez badu ere, gero eta gehiago dira pintxazoan jokatzen dutenak. Iñigo Rodriguezek Parisen bi lagunendako astebura irabazi zuen.

FLASH

### Beti Gazteko sokatira taldea 600 kilotan ere txapeldun

640 kilotan bezalaxe, 600 kiloko kategorian ere Nafarroako txapela eskuratu du Beti gazteko mutilen sokatira taldeak. Lesakan egindako tiraldi guziak irabazi zituen eta beharrik, Elizondon berdindua gelditu baitzen Berriozarrekin. Beraz, bi txapelekin akautu dute Nafarroako txapelketa mutilek, 580 kiloko txapelketan ez baitute parte hartu. Neskek azkeneko tiraldiak aste hondar honetan egitekoak zituzten Arbizun.

### San Nikolas eguneko kalejira

Azken urteotako ohiturari eutsiz, San Nikolas eguneko kalejira antolatu du Irain Guraso Elkarteak abenduaren 6an, Trikitixa taldearen laguntzarekin. Arratsaldeko 17:00etan abiatu eta karrikaz karrika ibiliko dira eskean.

### Eguberrietako sukaldaritza osasungarriaren ikastaroa

Abenduaren 13 eta 16an, Eguberrietako sukaldaritza osasungarriaren ikastaroa antolatu dute Oasun Zentroak eta Udalak, Arkupe elkartean. Asteazkenean 18:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 12:00etara eginen da. Izen emateko 012 telefonora deitu behar da.









ETXALAR

# Historiako bigarren uso-sasoirik txarrena izan da aurtengoa

## 36 dozena bakarrik hartu dituzte Usategietan

Joseba eta Nerea

Usategien historian urte bakarra ezagutzen da aurtengoa baino txarragoa izan zena. Duela hiruzpalau urte 34 uso dozena bakarrik harrapatu zituzten sareetan, gure aitatxi-amatxien garaian hartzen zituzten kopuruetatik hagitz urrun. Aurten errepikatu egin da kopuru hori. Azken urteetako martxari segituz, hagitz balorazio txarra eginez akabatu zuten usazaleek aurtengo denboraldia joan den azaroaren 18an.



Artxibokoa

**Duela lau urteko argazkia. Ez da aurten horrelakorik ateratzerik izan.**

### Etxalarren bezala, bertze Usategietan ere gaizki

Patxi Elizalde usazaleak erran digunez, *"ez da Etxalarren bakarrik pasatu hori. Bertze 10 Usategiekin badugu harremana eta denetan arront denboraldi apala izan da"*. Hamar usategi horiek elkarrekin harrapatu dituzten usoak kontuan hartuz, historian izan den kopururik eskasena dela aipatu digu Elizaldek. *"Usoak izituak heldu dira eta ez dira sareetara arrimatzen. Gu saiatu gara eta egun on samarrak ere izan ditugu baina orokorrean desastrea izan da denboraldia"*.

### Eguraldia kontran

Eguraldiak berebiziko garrantzia du usoak harrapatzeko garaian. *"%80a eguraldia da, eta bertze %20a usazaleok paratzen dugu"*, azaldu digu Gerardo Danborienak. Ipar haizea behar da usoak harrapatzeko eta aurten haizegoa izan dute kasik egunero. Urri gehienean ez da iparrik sartu eta hondar astean 3-4 egun on izan bazituzten ere, usorik ez zen etorri.

### Penak afari baten bueltan, pena erdi

Uso-denboraldi txarrak utzitako tristurak atzentzeko, afari ederraren bueltan bildu ziren usazale guztiak joan den azaroaren 18an. Kasik bi hilabete lanean aritu ondotik, hurrengo urtea hobea izanen den esperantzan agurtu zuten aurtengoa.



PERTSONAIA

Gerardo DANBORIENA

## 41 urte Usategietan

Urtetik urtera uso-denboraldi txarragoak izaten dituztela aitortzen du Gerardok eta duela 20-30 urte harrapatzen ziren kopuruetatik hagitz urrun daudela oraingoak. Hala ere, ez du dudarik Usategiek aitzinera segituko dutela. *"Gazteak ez dira aunitz animatzen baina gu bezalako koadrila batek segitzen duen bitartean, aisa ekontuko diogu ohitura zahar honeri"*. 41 urte daramatza Usategietan eta hasierako ilusioarekin segitzen du lanean. *"Guk 100 dozenako meta paratzen dugu urtero eta egia da azkeneko urteetan ez garela erdira ere ailegatzen. Hala ere, guretzat uso-kopurua baino aunitz gehiago da Usategietako lana eta posible dugun bitartean segituko dugu honetan"*.















## ARANTZA

# Aitziber Almandoz eta Aintzane Pikabea Nafarroako kantu txapelketako finalean

### Azaroaren 11n Elizondoko kanporaketan Lekunberrirako txartela lortu zuten




Argazkiak: Eider PORTU

**Aitziber Almandoz, Aintzane Pikabea, Leire Amoros eta Jon Koldo Arburua, Lekunberriko finalerako bidean.**

**Nerea ALTZURI**

Betidanik kantuzaleak eta kantari onak izan dira Aintzane Pikabea eta Aitziber Almandoz. Ttiki-ttikitik kantatzen arituak, duela urte batzuetako haur kantu txapelketetan parte hartuak dira. Bakarka nahiz taldeka eskolatik aurkezten ziren gaztexeagoak zirenean. Aurtengo ediziora bikote gisara aurkeztea erabaki zuten. Bieri aspalditik aunitz gustatzen zaien kantuarekin: Anje Duhalderen «Gogoaren baitan» kantuarekin alegia. Ttipi-ttapa aldizkarian irakurri omen zuten txapelketa abian zela eta izen ematea erabaki zuten. Leire Amoros teklatuan eta Jon Koldo Arburua kitarrarekin laguntzaile izan du bikoteak kantua jendaurrean erakusteko. Elizondoko Lur dantzalekuan azaroaren 11n izandako bigarren eta hondar kanporaketan hamalau talde, bikote eta bakarlariekin lehiatu ondotik, azaroaren 18an Lekunberrik egin zen final nagusirako sailkatu ziren. Azken saiotik saririk ekarri ez badute ere, maila handiko txapelketa izan dela goraipatu dute antolatzaileek. Beraz, Aitziber, Aintzane, Jon Koldo eta Leirek osatutako taldeak ere lan ederra eta polita eskainiz parte hartu du. Beti erraten den moduan, parte hartzea da garrantzitsuena... Hauen kasuan, ordea, finalisten artean ere izan dira. Beraz, ez dago batere gaizki. Zorionak.

## PERTSONAIA — Juan Miguel BIURRARENA

### XIX. eta XX. mendeko txistulari eta txistu egilea

Juan Miguel Biurrarena txistularia eta txistu egilea 1849ko ekainaren 17an jaio zen Eguzkialdea auzoko Exkibo baserrian. 18 urte zituenean txistua jotzen hasi zen, bere lagun Jose Lorenzo Fagoagarekin, Errene izengoitiarekin ezagunagoa zenarekin. 61 urtez herriko ttunttun jotzaileak izan ziren eta inguruko herrietako bestetan nola inauterietan ere txistua jotzen ibiltzen ziren. Umoretsu, txistu doinuez alaitzen zituzten plazak eta karrikak.

Nekaezina zen Juan Miguel, muztio gozo gozo edaten omen zuen txistua aunitz jo ondotik, zintzur idorra bustitzeko eta lanarekin hobe segitzeko. Biurrarenak musikarekiko zaletasuna bizitza guzian izan zuen. Gaztaroan, txistularia izateaz gainera txistuak egiten zituen. Ezpel egurra lehengaitzat hartuta, beharrezko tresnak ba omen zituen txistua egiteko. Nafarroa eta Gipuzkoa aldean salmentan ere ibiltzen omen zen. Irakurri dugunez, txistuz beteriko morralea bizkarrean hartuta, txistuak saltzen ibiltzen omen zen eta etxera, guziak salduta itzultzen omen zen. Biurrarena ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen. 24 urtez Donostiako udaletxeak Goizuetako Artikutzako basoetan zituen mendiko, harrobiko eta bertze arloetako lanetan aritu zen. Juan Miguel Biurrarena 1935eko apirilaren 2an zendu zen, 86 urterekin.


Jose I. Gonzalez Enguita
Bidasoa 49 - 1 ezk
31780 BERA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

Itturria
FERMIN MARITORENA LARRALDEA

IGANTZI

# Kultur Egunak abenduaren 7tik 9ra eginen dira

«Igantziarrak atzerrian» gaiarekin erakusketa eginen da ortziralean Baratzondon



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA TELEBISTA

**Orsaren asfalto fabrikaren inguruko eztabaida**

**Harrobi barrenean ezarri nahi den Orsa asfalto lantegiaren inguruko eztabaida pil-pilean somatzen da herrian. Lantegiaren kontra dagoen herritar talde batek idatzia igorri du komunikabideetara eta prentsaurrekoa eskaini zuen azaroaren 15ean. Hauen iduriko, udalak ez du argi jokatu afera honetan eta informazioa ezkutatu zaie herritarrei. Udalbatzak, bere aldetik, eskura duen informazio guzia herritarrei eskaini zaiela eta asfalto lantegiaren kontrako plataforma baino gehiago, udalaren beraren kontrakoa dela dio. Batzuen zein bertzeen iritziak laburbiltzeko toki askirik ez dugu hemen eta aldizkari honetako Irakurleak Mintzo sailean irakurtzeko modua duzue.**

ttipi-ttapa

Igantziko Euskara Batzordeak urtero antolatzen dituen Kultur Egunak abenduaren 7tik 9ra, ortzegunetik larunbatera eginen dira aurten. Beti bezala, egitarau zabala prestatu da.

Abenduaren 7an, ortzegunean, Baratzondon «Argitxo eta Dir-Dir» antzezlana eskainiko du Kukubiltxok 18:00etan, Udazkeneko Birako ekitaldien barrenean. Segidan, 19:00etan, Biltokin, «Nolako Igantzi nahi dugu?» gaiari buruzko mahaingurua izanen da. Hirigintza ereduari buruzko mahaingurua izanen da eta, bertzeak bertze, Patxiku Irisarrik, Jakoba Errekondok eta Xan Harriaguek parte hartuko dute.

Abenduaren 8an, ortziralean, «Igantziarrak atzerrian» gaiarekin erakusketa eginen da Baratzondon, 11:00etatik aitzinera. Bertan, argazkiak zein tresnak erakutsiko dira. 11:30-ean patata-tortila lehiaketa eginen da. Arraultze-opilak etxetik eginak eramanen dira Biltokira. 19:30ean Biltokin berendua eginen da, lehiaketako tortilak dastatu ahal izateko. Horrekin batera ostatuz ostatu hasiko da bertso-poteoa, Bortzirietako Bertso Eskolako bertsolariekin eta Igantziko bertso eskolakoekin.

Abenduaren 9an, larunbatean, arratsaldeko 15:00etan eta frontoian, haurrentzako joku tradizionalak izanen dira. Jokuak zikloka banatuta eginen dituzte. Handienek gymkana izanen dute. Bukaeran, denentzako berendua izanen da. 20:30ean helduentzako antzerki emanaldia izanen da Baratzondon. Txirene taldearen «Ogiyik karri etzun semia» eskainiko da.




BORTZIRIAK

# Emakumeen aurkako bortizkeria salatu du Mankomunitateak

## Azaroaren 25ean pankartak jarri ziren bortz herrietako udaletxetan

**ttipi-ttapa**

Azaroaren 25ean emakumeek jasaten duten bortizkeriaren kontrako eguna egin zen mundu osoan. Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hainbat ekimen eta hitzaldi antolatu zituen. Bortzirietako Mankomunitateak bortizkeria mota horren aurkako mozioa onartu berri du eta udaletxe guzietan pankartak jarri ziren.

Bortzirietako Mankomunitateak onartutako mozioak, emakumeen aurkako bortizkeria, munduko leku guzietan bezala, Bortzirietan ere badela azpimarratzen du eta horren aitzinean lehenbailehen neurriak hartu behar direla: lehenik, emakumeen aurkako bortizkeriaren larritasunaz gizartea kontzientziatu eta salatua izan dadila lortu; emakumeen aurkako bortizkeria desagerrarazteko neurriak hartu; bortizkeriaren biktimak diren pertsonen babesteko azpiegiturak planeatu; eta, azkenik, esparru publikoan zein pribatuan, sexistak ez diren ekintzak bultzatu, norberaren begirunean eta duintasunean oinarrituz. Helburuok lortzeko denon elkarlana behar dela azpimarratu zuten.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA TB

**Helena Santesteban Berako alkateak, Marisol Taberna zinegotziak, Uxua elkarteko Dominica Mercadal eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Ainhoa Guemesek kanpaina honen inguruko prentsaurrekoa eskaini zuten.**

## Iñaki Igoa lesakarrak irabazi du lan munduko lehiaketa

**ttipi-ttapa**

Euskara Mankomunitateko Lan Munduko Batzordeak Bortzirietako lantegietan lehiaketa-zozketa antolatu zuen urrian, euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Euskal Herriko burdinolei buruzko testu bat proposatu zuten, eta langileek bertan ziren hutsuneak hitz egokiekin bete behar zituzten. Lantegi guzietatik erantzunak jaso ziren, eta zuzen zeudenen artean bakar bat aukeratu zuten, urriaren 31n Arantzako Herriko Etxean egin zen zozketa bidez. Irabazlea Iñaki Igoa lesakarra izan zen. Bi lagunentzako afaria irabazi zuen Etxalarko Herriko Ostatuan.











ITUREN

# Kultur Egunak prestatu ditu aurten ere Ibintza taldeak

Asteburu honetan eginen dira, abenduaren 1etik 3ra



ARGAZKIA: ARKAITZ M.

**Aurtizko bestak inoiz baino jendetsuagoak izan dira aurten. Egitarau zabalaren barrenean, ikusmin handia piztu zuen emakume ezkondu eta ezkongabeen arteko herri kirol saioak. Horra bi taldeak elkarrekin.**

Arkaitz MINDEGIA

Urtero bezala Ibintza kultur taldean kultur egunak prestatu ditu. Abenduaren 1ean hasi eta 3ra bitarte eginen dira ekitaldiak. Ortziralean, abenduak 1, 20:00etan talo jatea eginen da Herriko Etxeko ganbaran eta ondotik dantza orientalak, Aixa taldearen eskutik. Larunbata, haurrei zuzendutako eguna izaten da gehien bat. Goizeko 11:00etan haur jokoak eta tailerra, 13:30ean haurren bazkaria Herriko Etxeko Ganbaran, 16:00etan Gorriti eta bere animaliak herriko plazan, 16:00etan mus txapelketa helduentzat (16 urtetik aurrera) eta eguna akitzeko 21:30ean bertso afaria Herriko Ostatuan Arzallus eta Elortza bertsolariekin eta ondotik dantzaldia Kristian akordeolariarekin. Igande arratsaldeko 18:00etan Ansa ahizpek kantaldia eskainiko dute Herriko Etxeko ganbaran.

Bertze urte batez Ibintza Kultur taldeak izaten dituen gastuei aurre egiteko boletoak saltzera atera ditu. Lehendabiziko saria zare eder bat, bigarrena bizikleta eta hirugarrena Altxunea jatetxean 2 lagunendako afaria. Zozketa beti bezela errege bezperan eginen da jendaurrean. Badakizu, erosi eta zortea izatea espero.

### Aurtizko Ostatua

Hilabete pare bat pasatu ondotik, Aurtizko ostatuko ateak berriz ere zabaldu dira. Doneztebeko Ana eta Oieregiko Paulak hartu dute. Irekiera bestetan izan zuten eta espero dugu oraingoan zortea edukitzea eta asko irautea.

### Eskolako irteerak

Abenduaren 19an Irungo Ficobara irteera eginen dute. Bertan Eurohiriaren eguberri haurparkearen hirugarren edizioa ikusteko aukera izanen dute. Tailerrak, jokuak, makinak... Goizeko 10etatik eguerdiko 15:00ak arte egonen dira Irunen. Feria hau abenduaren 16tik urtarrilaren 7ra bitarte zabalik egonen da.

### Eskolan erakusketa

Eguberriak baino lehen gurasoentzat erakusketa prestatuko dute 3, 4 eta 5 urteko haurrek. Hilabete hauetan Picasso pintorearen istorioa ezagutzen aritu dira eta hori erakusketa baten bitartez erakutsiko dute.


















DONEZTEBE

# Eskuz binakako pilota txapelketan izen emateko epea ireki du Errekak

Ilbeltzean hasiko bada ere, abenduaren 13rako apuntatu behar da

ttipi-ttapa

Erreka elkarteak eskuz binakako bosgarren pilota txapelketan izen emateko epea ireki du. Benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil, senior 2. maila eta senior elite kategorietan banatuko dira partehartzaileak. Azken honetan gonbidapen bitartez sartuko dira pilotariak, baina gainerako guzietan, nahi duten guziek parte hartzen ahal dute. Partidak Doneztebe eta Sunbillako frontoietan jokatuko dira. Senior kategoriakoak asteazken arratsaldetan arituko dira eta kategoria ttikienetakoak, berriz, igande goizetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Gazte Burrunba taldeak antolatutako solasaldien barrenean, Txus Migeltorena herriko urpekariak diapositiba-emanaldi interesgarria eskaini zuen azaroaren 11n.**

Izen ematea Erreka elkarteko 948 450991 fax zenbakira deituz egiten ahal da, abenduaren 13a bitartean. Txapelketa 2007ko ilbeltzean hasi eta martxoko bigarren hamabostaldian akituko da eta kanporaketa bidez erabakiko da. Urtero bezala, hainbat pilotari arituko dira txapelketan.

INTERNET

## Eskualdeko bederatzi udal gehiagok web-orria izanen dute

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio departamentuaren «Oinarrizko weba, web orri bat udal bakoitzarentzat» kanpainaren barrenean, Nafarroako bertze 58 herrik izanen dute bere web-gunea Interneten. Eskualdeko herriei dagokienez, Arantza, Beintza-Labaien, Donamaria, Igantzi, Oitz, Urdazubi, Urrotz, Zubieta eta Zugarramurdiko udalek izanen dute beraien orria.

Gaur egun, Nafarroa osoan 272 udaletatik 91k bakarrik daukate zerbitzu hori. Kopuru apala da, baina Nafarroan herri ttiki aunitz daudelako omen da.

ANSONEA
Ostatua-Jatetxea
Eguneroko menua eta asteburutan menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 · 948 631 155 · BERA


Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA


LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA



TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK
TOLDOS BAZTAN S.L.
Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
Kontsulta ordutegia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordua eskatu
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetia · Asma · Zizareak · Larru azaleko alergia · Buruko mina
Oinen izerdia · Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA:
Miopia · Bista alfertua · Estrabismoa · Begi lausoak-katarata
GIHARRE ARAZOAK:
Biskartzea · Artritis · Erreuma · Artrosis · Lunbalgia · Bihurdurak · etab
Telefonoa: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 · IRUN

ARANO

# San Martin festak berreskuratu dituzte aurten herriko gazteek

## Mikel Ruizek diapositiba erakusketa bikaina izan zen



Kontxi KLABER

Gure aiton-amonei eta gurasoei entzun diegu garai batean herriko festak San Martinetan ospatzen zirela, herriko patroia denez, eta ez Santioagoetan guk ezagutu ditugun bezala. Azaroan, neguaren atarietan gehienetan ez zen goxotasun handirik izanen eta horregatik aldatu ziren. Noizbait izan dute egun honekin afariren bat bertsolariekin, baina jarraipenik ez du izan. Aurten festa hori berreskuratzea pentsatu dute herriko gazteek eta horrelaxe programazio ederra prestatu zuten azaroaren 11rako. Arratsaldean kontzejuko ganbaran Mikel Ruizek ateratako ia 300 diapositibaren erakusketa bikaina eskaini zuen bere iloba Joxeanek eta piano soinuarekin ederki lotuta Arantxa Ansak. Bertan herriko etxe eta jendea ikusten zen, orain dela urte asko ateratako argazkietan. Ondotik, Ansa ahizpek kontzertu ederra eskaini zuten eta jendeak kantatzeko aukera izan zuen, azkenik ilunabarrean elkarteko arkupean nahi adina talo eta gaztaina erre zituzten. Honi denari lagun egiteko bi sagardo kupel izan ziren. Gazteek iazko Olentzerotan etxez-etxe bildutako diruarekin eta bertan jarritako borondatearekin ordaindu dute erositako guztia, honexegatik antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiote herritar guztiei.

Rural Kutxaren Etxebizitza Pentsioa



"Orain, 65 urte baino gehiago dugunoi Rural Kutxak hilabetero Pentsio gehigarria eskaintzen digu"

**Zure etxeak duen balioari esker,** Rural Kutxak hilabetero **pentsio berri** bat eskuratzeko aukera eskaintzen dizu, eta horrela, zure ohiko diru-sarrera osatuko duzu.

Bizitzaz gehiago disfrutatzeko, bidaiatzeko, norbaitek zu zaintzeko, zure etxean edo nahi duzun tokian bizitzeko... azken finean, nahi duzun bezala bizitzeko.

Eta hori guztia, **zure etxearen jabetza mantenduz.**

Egunetik egunera hobeki egitea dugu helburu

www.ruralvia.com

NAFARROAKO RURAL KUTXA

Argibide gehiago nahi baduzu, zatoz Rural Kutxaren edozein bulegora.

## GOIZUETA

# Berrikuntza handiekin hasi du ikasturtea Goxali haurren txokoak

### Alaitz Eskudero izanen da arduradun bakarra, astean lau orduko kontratuarekin



ARGAZKIA: ALAITZ ESKUDERO
**Astelehenero eta ostiralero biltzen dira Goxali Haur Txokoan.**

Esteban AROTZENA

Orain arte bolondresen lanari esker aurrera atera den Goxali haurren txokoak sakoneko aldaketekin ekin zion urriaren 16an 2006-07 ikasturteari. Aipagarriena, magisteritzan diplomatutatako Alaitz Eskudero dela arduradun bakarra astean lau orduko kontratuarekin.

Astelehenero eta ostiralero elkartzen dira 17:00etatik 19:00etara bitarteko ordutegian, Haur Hezkuntzatik hasi eta DBH-4 maila bitarteko neska-mutikoak. Astelehenetan jolas gidatuak eta eskulanak egiten dituzte, eta ostiraletan berriz, beste hainbat aktibitatetan igarotzen dituzte bi orduak. Hilabetean behin, haur txikienak eta beraien gurasoak izaten dira partaide, eta adin horretarako egokiak diren jolasak antolatzen dira.

### *Udaletxeko berriak*

Nafarroako Gobernua ez da eskuzabala izan aurten baserritako bideak galipotatzeko udalak egindako eskaerari erantzutean. 22.000 euroko laguntza jasoko da Iruñetik eginkizun horretarako, eta udalbatzak erabaki duenez, orain dela bi urte Aitasemegiko pistan konpondu gabe gelditu zen puska zolaberrituko da aurten.

Beste aldetik, berandu samar baina, Iruñetik etorri berri den subentzioa saneamenduko lan osagarriena izan da. Obra horien 80.000 euroko kostua udalak ordaindu zuen oso-osorik bere garaian, eta oraintxe ailegatu da herrira orduan hitzartutako 89.000 euroko laguntza.

Herriko Etxeko gaiekin bukatzeko, aurreko ale batean informatu genuen bezala, irailaren 13ko batzarrean kanposantuko eta suhiltzaileen lokal berriaren bigarren zatiko obren aurrekontua eguneratzea erabaki zuen Udalak, ez baitzen eskaintzarik aurkeztu bi lan hauetarako. Aurrekontu berria interesgarriagoa iruditu zaie enpresei eta dagoeneko udalak esleitu ditu bi obrak: kanposantua (47.104 euro) Mikel Urdanpilletaren Urdanportuk eginen du; eta suhiltzaileen lokala (81.766 euro) Zabala eta Goikoetxeak.



ARG: MAITANE APEZETXEA
**50 kiloko pisua omen du Ander Mitxelenaren ondoan argazkian ageri den kalabaza horrek. Bere gurasoek Aierretan duten baratzean sortu eta hazia.**

## ARESO

# Jende ugari bildu zen Euskararen Egunean

Juana Mari SAIZAR

Jende ugari bildu zen Euskararen egunean. Eguraldiak ez lagundu arren, ekitaldi guztiak bete ziren. Hasteko taloak izan ziren, herritarrek prestatuak. Ondotik, kalejira egin zen txistulari eta trikitilariekin. Bazkaldu aurretik herriko gaztetxoen pilota partidu bat jokatu zen: Anartz Olano eta Mikel Onsalo, Xabi Eraso eta Joxerra Aldaregiaren kontra. Irabazleak Mikel eta Anartz suertatu ziren. 14:30ak aldera, herri bazkaria izan zen Pake-Toki elkartean eta tripak bete ondoren, musikaz gozatzeko aukera izan zuten Jaione Olazabal eta Jon Gurrutxagarekin. Arratsaldean, Kixaka antzerki saioa izan zen eta bukatzeko txokolatea bizkotxoarekin hartu zuten.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR
**Azaroaren 18an Lekunberrin ospatutako Nafarroako Kantu Txapelketan Jaione Olazabal izan zen bakarlaririk onena, bere anaia zenduari eskeinitako "Zuri kantari" kantuarekin. *«Kantu hau gurekin ez dagoen batentzako da, gauero pizten den izar batentzat»*, hau esanez hasi zuen bere saioa. Bere laguntzaileak Jon Gurrutxaga gitarrarekin eta Unai Zabaleta zeharkako txirularekin izan ziren. Jaionek esan digunez, finalerdietako saioan hobeto aritu omen zen, finalean ahotsak alde egiten omen zion eta.**

LEITZA

# Herritarren kantuak eta kontuak artxibategi berezi batean gordeko dira

## Euskokultur Fundazioak Nafarroako ahozko ondarea biltzeko asmoa du




ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Joseba URKIOLA

Euskokultur Fundazioak herritarren kontu, kantu, istorio, aitortza... bezalako gauzak artxibatu egingo ditu. Elkargo honen helburua Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia sortzea da. Ondare aberats honek gure herria duela 50, 70, 90 urte nolakoa zen erakutsi nahi digu. Horretarako Fundaziokoek Nafarroa osoko eta Behe Nafarroako herrietara joateko asmoa daukate.

Proiektu berritzaile hau gure herrian behar bezala aurrera atera ahal izateko, Udalaren eta herritarren laguntza beharrezkoak izango dira. Herritarrek artxibategia hornitu eta osatu ahal izateko elkarrizketetan parte hartu beharko baitute. Udalak bestelako laguntza eskaini ahal izango du.

Oraindik proiektua lehen pausoak ematen ari bada ere, bere garrantzia handia izan daitekeela azpimarratu behar da. Euskokultur Fundaziokoek leitzarrei egingo dizkieten elkarrizketa horiek betirako gordetzeko aukera egongo baita. Jendearen testigantza hauek, gainera, Fundazioak sortuko duen web orrialde batean gordeko dira. Horrela herrian biltzen diren hitz eta esanak, mundu osoan eskuragarri egonen dira. Elkarrizketa horiekin baita: Herriko ahozko ondarea biltzen duen DVDa, ikastetxeetarako material didaktikoa... bezalako gauza interesgarriak sortzeko aukera ere egon daiteke.

### Ongi etorri beroa Igor Astibiari

**Badira egun batzuk Igor Astibiak Navalcarnerotik Leitzaldera etorri zela. Azaroaren 8an herritarrek ongi etorria egin zioten eta une gogoangarriak bizitzeko aukera izan zen. Hilaren 18an beste ongi etorria egin zioten. Herriko plazatik abiatu zen manifestaldian 350 bat pertsonek parte hartu zuten. Gero, plazan une hunkigarriak bizitu ziren. Txalaparta doinuak izan ziren entzungai. Ondoren Leitzako Bertso Eskolako Miguel Mari Elosegi eta Unai Elizasu bertsolariek bertso bana abestu zuten. Ainara Gastearenak mezu bat irakurri zuen eta bukatzeko, herriko txistulariak lagun Aurrera Dantza Taldekoek Sarrera eta Aurreskua dantzak dantzatu zituzten. Tartean, Igor Astibiak berak ere hitz batzuk plazaratu zituen eta oroigarri batzuk jasotzeko parada eduki zuen. Aurkezpen lanetan, Arantxa Iparragirre Karrape Irratiko esataria ibili zen. Behin plazako une hunkigarriak amaituta, triki-poteoaren eta Amazabal Pilotalekuan burutu zen afari jendetsuaren txanda iritsi zen.**

### Oialde elkartearen eskaera

Oialde Gastronomia Elkartea bazkide bila dabil. Izen emateko epea abenduaren 15a bitarte izango da. Interesatuak bere izen-abizenak eta telefono zenbakia, Elkartearen sarreran aurkitzen den gutunen kutxara eraman beharko du. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Oialdera bertara gerturatu zaitezkete.

### Kantu txapelketa

Amaiera ona eman diote Leitzako ordezkariek aurtengo Nafarroako Kantu Txapelketari. Lehen sailkapen fasea igaro ondoren, Maddi Olano eta Birginia Mariezkurrenak osatutako bikotea eta Itziki Xalauk taldea azaroaren 18an Lekunberriko 31 Aretoan ospatu zen finalean protagonista izan ziren. Herriko ordezkariek ez dute inolako saririk eskuratzeko aukerarik izan, baina partaideek esan digutenaren arabera "gustura" dira Lekunberrin eta orokorrean aurtengo Txapelketan eginiko lanarekin.

ERROTALDE
BIDEO-KLUBA
ESKU LIBREKO
TELEFONOEN INSTALAZIOA
Astelehenetan 18:00-21:00
Asteartetik ostiralera 10:00-13:00 / 17:15-20:45
Larunbatetan 10:00-14:00 / 18:00-22:00

Ark b arkitektura bulegoa
Eraikuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza
Celia Lana Ranz
Huarte Gotzai 7 - 31880 Leitza
645008478 tel

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucesba @ msn.com

BAZTAN

# Bai Euskarari Akordioaren segida bideratzeko langilea hartu nahi da

## Kurrikulumak abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira

Maite OTEIZA

Baztango euskalgintzak Baztanen Bai Euskarari Akordioaren jarraipen lana egiteko teknikari bat kontratatu nahi du. Interesatuek, kurrikuluma bidali beharko dute abenduaren 15eko 14:00ak baino lehen Baleko Etxeko Euskara Zerbitzura. Lehen proba abenduaren 19an izanen da.

Langileak eskola graduatu titulua eta gida baimena eta kotxea izan beharko ditu. Euskaraz ahoz zein idatziz jakin beharko du. Kontuan hartuko dira informatika ezagutzak, lan beharrak eskatzen duenari egokitzeko prestutasuna, Baztan ezagutu eta bertan bizitzea, antzeko lanetan esperientzia izatea eta euskalgintza ezagutzea. Kontratuari dagokionez, urtebetekoa izanen da, 2007ko ilbeltzaren 8tik hasita eta astean 15 orduko dedikazioa eskatuko da. Orduen antolaketa moldakorra izanen da.



Argazkia: Aitor A.

**«Xorroxin biluxik» hiru orduko irratsaio goxoa aditzeko aukera izan zuten Xorroxin Irratiko entzuleek azaroaren 18an. Iruritako Damaso Zabalza gizarte zentrotik emanaldi ederra eskaini zuten eta 25 urte hauetan irratian lagundu duten hainbat lagun hurbildu ziren mikrofonoetara: eguraldi iragarlea, sexologoa, alkateak, herrietako berriemaileak, kirolariak, musikariak, biologoak, bertze herri irratietako esatariak… Hainbertze elkarrizketen artean musikak ere izan zuen bere tartea eta Joseba Irazokik, Pottokak edo Jalisko Bandek beraien kantuak eskaini zituzten. Ondotik, Olari jatetxean bazkaltzera bildu ziren irratiko langile eta laguntzaileak.**

### *Testamentu eta herentziei buruzko solasaldia abenduaren 5ean*

Abenduaren 5ean Boluntariotzaren nazioarteko eguna ospatzen da. Egun horretarako hitzaldia antolatu du Bidelagun elkarteak Baztango herritar eta zonaldeko pertsona guztiei erekia.

Hitzaldiaren gaia «Testamentuak eta herentziak» izanen da. Hizlaria Javier Unzeta, jabetza-erregistratzailea eta Accion Familiar taldeko kidea izanen da. Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean emanen da, 18:30ean. Gai honekin, adineko pertsonak lagundu nahi ditu Bidelagun elkarteak, zalantzak argitu eta ideia bat eman. Denbora izanen da bakoitzak dituen zalantzak erakusteko, galderak egiteko eta bertze. Interesgarria izanen delakoan parte hartzea bertzerik ez da falta.

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491

Mendialdea etxea, 34. ZUBIETA


ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatua
Frantzisko etorb. 12
Ameztialde 3B
ELIBETE



BAZTAN

# Almandozko eliza berriaren 50. urteurrena ospatu zuten herritarrek

## Bere garaian lagundu zutenei omenaldia eskaini zitzaien

M. O.

Almandozko San Pedro elizaren 50. urteurrena ospatu zuten azaroaren 12an. Parrokiak omenaldia egin zien eliza berriaren eraikitzean lagundu zutenei. Joan den mendearen erdialdean, eliza zaharra egoera kaskarren zelako arriskutsua bilakatu zen bertan edozein ofizio egiteko. Hori dela eta, garaiko apeza, Norberto Iturralde zena buru zutela, eliza berri baten eraikitzea erabaki zuten herritarrek. Lehen harria 1953ko irailaren 13an pausatu zuten eta hiru urte beranduago inauguratu. Gaur egungo apezak, Ramon Apezetxeak dioenez, oparoak ez ziren garai haietan herritarren laguntza beharrezkoa izan zen eta ez omen zen makala izan.

Hauen eskertzeko antolatu zuten omenaldi egun berezia egunsentiko kantuekin hasi zuten, ondotik eukaristia egin zuten Elizondoko abesbatzak kantatua. Abesbatzak kontzertua ere eskaini zuen meza eta gero. Eguerditan aperitiboa egin zuten herritar guziekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Almandozko San Pedro eliza egin berritan, gibeleko aldean eliza zaharra duela. Gaur egun egoera kaxkarragoan dago eliza zaharra.**

# Dokumental sarituak eskainiko dira Elizondoko Museo Etnografikoan

M. O.

Punto de Vista Zinema Dokumentalaren Jaialdian saritutako filmak eskainiko dira abenduaren 6an eta 8an Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoan. Abenduaren 6an, film onenari sari nagusia ex aequo eskuratu zuen «Sonia» eta film laburrik onenaren saria lortu zuen «Le pont sur la drina» eskainiko dira 18:30etik aitzinera. Abenduaren 8an, film onenari sari nagusia ex aequo lortu zuen «Melodias» eskainiko da ordu berean.















## BAZTAN

# Erresonantziak egiteko makina ibiltaria Elizondon izan zen

50 bat laguneko zerrenda osatzen bada, berriz ere etorriko da

Maite OTEIZA

Nafarroako Osasun Zerbitzuko erresonantzia magnetikak egiteko makina ibiltaria Elizondon egon da bi egunez, eskualdeko pazienteei zerbitzu hau eskaintzeko. Azpiegitura ibiltari hau urriaren 5ean martxan jarri zen, eta hemendik goiti Nafarroako herri nagusietan ibiliko da. Egunean 35 bat erresonantzia magnetika egiten ahal ditu, eta hilabetean 800 bat.

Lehen aldia da Iruñetik kanpo ateratzen dela. Elizondotik pasatu eta gero, Tuteran, Lizarran eta Tafallan egon da. Sistema berritzaile hori hautatu dute erresonantzia behartua den lekutik hurbiltzen delako, eta beraz pazienteak ez duelako mugitu beharrik.

Kamioi baten ibiltzen den azpiegiturak, ospitale batean eman daitekeen kalitate berdina eskaintzen du. Unitate mugikor hau, Nafarroako Osasun Zerbitzuak duen laugarren erresonantzia magnetikak egiteko makina da, bertze hiruak finkoak dira Iruñean.

Unitate mugikorrak egutegi finkorik ez du momentuz, baina 50 bat pazienteko zerrenda osatuz gero, berriz ere Elizondora itzuliko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Arraiozko merkataritza gunearen lurrari izendapena aldatu dio Nafarroako Gobernuak*

**Nafarroako Gobernuko Ingurumena, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak baimena eman du Arraiozko 49.000 metro koadro landa eremu izatetik zerbitzu arlora bideratu ahal izateko. Urtelor enpresak merkataritza gunean egin gogo du eremu horretan, baina hasieran, uholde arriskuarengatik ezetza eman zuen Nafarroako Gobernuak, Ur Konfederazioaren txostena kontuan hartuz. Lehen proiektuak lurra altxatzea eta gaineko aldean harri-lubeta egitea aurreikusten zuen, baina horrek uholdeen arriskua handitzen zuen, batez ere Arraiozko erdigunean. Onartu duten proiektu berri honetan, aldiz, harri-lubeta desagertu da eta lurra ez da lehenean bezainbat altxatuko. Merkataritza gunea atertuko duen eraikinari dagokionez zutabe batzuen gainean eginen da. Neurri hauei esker, uholdeen arriskua ttikituko da, proiektuaren egilearen ustez. Ikuspegiaren aldetik, Bidasoa ertza ahal bezain bat kontserbatzeko zuhaitzak landatuko dira.**








Distralum
Zure lorategi, terraza eta atikoaz goza dezazun soluzio guztiak ematen dizkizugu



NOVOPRINT
MATERIAL INFORMATIKO, TELEBISTA, AUDIO ETA BIDEO KONPONKETA
INFORMATIKA-SAREEN ISTALAZIOA
PARTIKULAR ETA ENPRESENDAKO ZERBITZUA
DOAN BILDU ETA ENTREGATZEN DA NAFARROA OSOAN
Lucas de Berroa, 18 behea (Anzaran) • IRUN • Tel.: 943 61 00 42 - 943 61 27 83
www.novoprintinformatica.com

# NAFARROAREN EGUNA

ABENDUAREN

**3A**





Jauregia ezagutzeko bisita gidatuak


Opera-gala Baluarten


Jaialdi Gaztea


Haurrendako jaialdia


San Frantzisko Xabierkoari eskeintza


Ekitaldi instituzionalak


Magic Disney


Musika koru eta bandak

## ¡GOZA EZAZU!

Nafarroako
Gobernua

bentamiguel
denda, jatetxea eta ostatua
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
Tabakoa
Likoreak
Janaridenda
Urdaitegia

Okindegia Jatetxea
Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Espezialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea, goxo goxoa!
Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

BEROGAILU INDUSTRIALAK
TXIMINIARIK GABE · KERIK GABE · USAINIK GABE
ADI !!
PABILIOI eta BILTEGIAK berotzeko gaitasuna du
Deitu eta demostrazioa egitera joanen gara
garsan
GASOLIO edo GASOLIO Crekin
"ADI ENPRESARIAK"
ZURE PABILIOI EDO BILTEGIA BEROTZEKO MODURIK ERRAZ ETA MERKEENA AURKEZTEN DIZUGU.

Distralum Banatzaile ofiziala: 948 631 626 / 607 402 873 · sistemas@distralum.e.telefonica.net

CEDERNA GARALUR PYRED

**PYRED2, enpresak lankidetzan jarduteko aukera bat**

Globalizazioa nagusitu den honetan, garrantzitsua da behar bezala kokatzea negozioetan etekin handiagoa lortze aldera. Hori dela eta, funtsezkoa dirudi enpresa txikiek merkatuan bere lekua hartzen edo hobetzen lagunduko dieten itun eta akordioetara iristea eta foroetan parte hartzea. Horixe da, besteak beste, Interreg IIIA Erkidegoaren Ekimenaren barnean kokatzen den PYRED2ren xedea. Proiektuan parte hartzen ari diren entitateak Mugaz gaindiko enpresen eta zerbitzuen komunitate digitala sortzen ari dira lanean.

**Lan mahaia**

Mahaien antzera, gure Komunitate digitalak 4 hanka ditu: lehena, proiektuan interesa duten enpresak (ETEak eta mikroETEak), bigarrena PYRED2 proiektuak ematen dituen zerbitzu guztiak (lan teknikoa), Interneteko ataria hirugarrena eta, azkena, Europako Batasunaren laguntza finantzarioa (Interreg IIIA programaren bitartez). Lanerako, elkartrukerako mahaia izan nahi du Komunitate digitalak, ETEentzako balio erantsiko zerbitzuak topatzeko, enpresaburuen arteko lankidetza garatzeko, prestakuntza bide berriak lantzeko eta laguntza tekniko espezializatua jasotzeko aukera emanen duen gunea.

**Ur zorrotadak erakusten du non dagoen iturria**

Guztiok dakigu, proiektu nahiz asmoren bat aurrera ateratzeko modurik hoberena ahoz aho egitea dela. PYRED proiektuak, lehen etapan, Pirinioez bi aldeetako enpresen arteko 24 lankidetza akordio abian paratzea lortu zuen eta horien artean, Berako Errotazar enpresa dago. CEDERNA-GARALUR Elkartetik sustatu diren 24 lankidetza akordioek hainbat jarduera esparrutan izan dute eragina, besteak beste: informazio trukaketa (%18), saleroskета kontratuak (%22), komertzialak kontratatu (%4), merkatu azterketak (%34), eta azpikontratazioak (%22).

**Gure Hiru Erregeen Mahaia partikularra**

Egunetik egunera, Pirinioak negozio eta lankidetzarako aukera direla ohartzen ari gara eta gailurrera heltzeko, Pirinioez bi aldeetako enpresaburuek Komunikazioaren Teknologia Berrien laguntza dute: gure Hiru Erregeen Maila . Horrela, Pyred2an parte hartu edota informazio gehiago jaso nahi baduzue sartu www.pyred.com aterira edo Cederna-Garalur elkartean 948 382593 (Aitor Boneta)



www.pyred.com

SENPERE

# ARIT toxikomaniaren kontrako elkarteak permanentzia berria ireki du herrian

## Gazteentzat etxebizita berriak eraikitzen segituko du Herriko Etxeak

Franck DOLOSOR

ARIT elkartea permanentzia egiten hasi da ortzegun guziz arratsaldeko 5:30etik 7ak arte postetxearen ondoan. Elkarte hori 1979an sortu zen toxikomanoak eta beren familiak laguntzeko. Kanabisa kontsumitzea gero eta arruntagoa bada ere, legeak hori debekatzen duela gogoratzen du Françoise Laxague ARI-Teko langileak eta hezitzaile berezituak. Polizia baino gehiago prebentzio lana egin nahi du Laxaguek. Gazteak edo beren gurasoak laguntzen ahal ditu ARI-Tek. Lan baliosa da dudarik gabe, droga problemak agertzen direlarik ez baita batere errex zerbait egitea drogazaleak laguntzeko.

Miarritzen kokatuan den elkartean medikuek, sikiatrek, sikologoek eta erizainek osatzen dute Françoise Laxaguen lan taldea. Senperen ireki den permanentzia urri hastapenean ireki da eta hiru hilabeteen buruan bilan bat eginen da, esperientzia hori segitu behar den ala ez ikusteko. Aipagarria da Françoise Laxague euskalduna dela eta beraz bi mintzairetan ematen ahal duela bere laguntza.

### Etxeak gazteentzat aintzira inguruan

1.500 metra karratuko lur eremu bat erosi du berriki herriko etxeak aintziran. Hautetsiek 6 apartamenduko etxe bat eraiki nahi dute. Apartamenduak herriko gazteeri salduko zaizkiote. HLM babes ofizialeko etxeen erakundeak kudeatuko du proiektu hori. Bertzalde, aintzirako bigarren etxegunea eraikitzeko dena prest da. Lanen lehen partea bururatu da eta orain etxeak altxatzen hasten ahalko dira. Orotarat, herriko 9 familia gazte instalatuko dira 1.500 metra karratuko lur eremu horietan. Herriko etxeak 48.000 eta 53.000 euro artean saldu ditu 9 lur horiek.





ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**60 eta 75 urtekoen biltzarrak**

**Aurten 60 eta 75 urte bete dituzten senpertarrek lagunen arteko biltzarrak izan dituzte berriki. Adinean goiti doazen neurrian, umorean eta alaitasunean ere berdin egin dutela erakutsi zuten. Zorionak deneri eta ainitz urtez...**






SARA

# Beti Gazteren urteko azken bazkaria abenduaren 7an

## Mayi jatetxean bilduko dira

Laetitia eta Sandrine

2006ko abenduaren 7an, eguerditan, Beti Gazte elkarteak gonbidatzen ditu, adineko guziak, Mayi jatetxeak, urteko azken elkarretaratze batera, bazkari goxo baten aintzinean. Prezioa 17 euro karta dutenentzat eta 21 euro bertzeentzat. Izenak eman behar dira abenduaren 4a aintzin Jeannot Etcheverrigarayeri 05.59.54.21.34.

### Telethon

Telethon miopatiari buruzko ikerlanen sustengatzeko kanpainak abenduaren 7an eta abenduaren 9an dira. Abenduaren 7an ostegunarekin, hiru eskoletako haurrak elgarretaratuko dira arratsaldean errebotean, oren bateko ibilaldia egiteko, ondotik haur guzientzat krakada eskainia izanen da plazan. Abenduaren 9an larunbatarekin, herritar guziak komitatuak dira Larrunera treinez upatzera eta iluntzean oinez jaustera sakelako argiarekin. Parte hartzeko izenak eman behar dira abenduaren 8a aintzin Turismo bulegoan edo 05.59.54.20.14. zenbakira deituz (parte hartzea 10 eurokoa da). Hitz ordua San Inazioko lepoan da arratsaldeko 4etan treinez abiatzeko. Arratsaldeko 5etan itzultzea oinez.

Bertzalde eske ontzi bat emana izanen da postetxean ostirala egun guzian eta larunbatean goizean baita San Inazioko lepoan ere, larunbatean 4etatik 8ak arte.



ARGAZKIA: LAETITIA GERENDIAIN

### Pasaka

**Orain arte, bi talde ziren Sarako Izarran pasakan, Jean Marie Lapeyre eta Andoni Alli talde bat, Jean Marc Eliceiry eta Mattin Arrieta bertze taldea. Aurten talde berri bat eraiki da Berrouet Mathieu, Garcia-Basurco Ximun eta Etchegaray Patrick hiruen artean konpontzen dira, txapelketan aritzeko.**

### Santa katalinak

Urtero bezala, Santa Katalinak ohoratuak izan dira azaroaren 26an kaperan. Besta bezperatik hasi zen Ihalarko Baratxarte jatetxean tripotx jatetxean. Igandean meza nagusia kaperan emana izan da 10:30ean eta ondotik zintzur bustitzea mutxikoekin iragan da Baratxarte aintzinean.

### Marrazki txapelketa

Eguberritako turismo bulegoak marrazki txapelketa antolatzen du. Marrazkien gaia olentzeroren lantokia edo "Pere Noel"-en lantokia da. Hiru eskoletako haurrek parte hartzen ahal dute, marrazkiak turismo bulegora eremanez. Ondotik marrazki hoberenak sariztatuak izanen dira urtarrilean.

### Saratar interesatueri

Jakinarazten dizuegu laster nahi ginukela pertsona berri batzu atseman ttipi-ttapan idazteko. Interesatuak bazirezte deitzen ahal duzue zenbaki honetara 06.86.68.60.57. edo 06.84.27.51.27 xehetasun gehiago nahi balin badituzue.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



## EZKONTZAK

**Carlos Leonardo Hurtado Reinoso** eta **Nancy Ibeth Coimbra Bejarano**, Elizondokoak, azaroaren 9an.
**Angel Pombar Sainz** eta **Begoña Larralde Etxarte**, Bera eta Lesakakoa, azaroaren 13an.



## SORTZEAK

**Uxoa Elizondo Barrenetxe**, Lekarozkoa, azaroaren 1ean.
**Ugaitz Apeztegia Bidegain**, Elizondokoa, azaroaren 1ean.
**Izaro Etxaide Ballarena**, Elizondokoa, azaroaren 11n.
**Oihan Pikabea Elia**, Berakoa, azaroaren 4ean.
**Nahia Pikabea Elia**, Berakoa, azaroaren 4ean.
**Iruri Elgorriaga Ara**, Berakoa, azaroaren 12an.
**Jon Larretxea Ballester**, Lesakakoa, azaroaren 4ean.
**Ander Narbarte Oiartzabal**, Goizuetakoa, azaroaren 1ean.
**Mattin Retegi Azpiroz**, Doneztebekoa, azaroaren 2an.
**Mirari Iribarren Juanikorena**, Zubietakoa, azaroaren 5ean.
**Aitziber Zozaia Juanena**, Urrozkoa, azaroaren 9an.
**Ellande Larronde**, Sarakoa, azaroaren 7an.



## HERIOTZAK

**Rafael Silanes Gonzalez**, Elizondon, azaroaren 13an, 71 urte.
**Martin Bengotxea Otxandorena**, Arraiozkoa, azaroaren 15ean, 95 urte.
**Francisca Arotzena Zubiri**, Goizuetakoa, azaroaren 19an, 84 urte.
**Modesto Eneterreaga Esparza**, Lesakakoa, azaroaren 11n, 90 urte.
**Pilar Iratzoki Agirre**, Berakoa, azaroaren 13an, 84 urte.
**Pedro Julian Perugorria Arretxea**, Berakoa, azaroaren 7an.
**Teresa de Jesus Garrido Martinez**, Elgorriagakoa, azaroaren 14ean, 71 urte.
**Mari Carmen Irigoien Iriarte**, Berroetakoa, azaroaren 19an, 80 urte.
**Antonio Irigoien Aleman**, Zigakoa, azaroaren 20an.
**Ines Sein Sansiñena**, Igantzikoa, azaroaren 17an, 77 urte.
**Teodoro Perugorria Danboriena**, Etxalarkoa, azaroaren 20an, 71 urte.
**Jesus Mari Aldaz Vales**, Elizondon, azaroaren 20an, 70 urte.
**Bernard Elizalde**, Sarakoa, azaroaren 17an, 93 urte.
**Pedro Miguel Azkarraga**, Sarakoa, azaroaren 20an, 77 urte.



**Victoria HITA ARCE**
**«Bittori»**

Alejandro Juanikotena Torres-en alarguna

II. URTEMUGA

Cancun-en (Mexiko) hil zen, 2004ko azaroaren 27an

*Ez agurrik, ez adiorik*
*gero arte baizik.*
*Gure bihotzetan betiko*
*maite zaitugu amatxi.*
*Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA



**Pilar**
**IRAZOQUI AGUIRRE**

Beran hil zen azaroaren 13an,
84 urte zituela.

*Gogorra da onartzea*
*gehiago ez zaitugula ikusiko*
*baina bizi garen artean*
*ez zaitugula ahaztuko.*

ZURE FAMILIA



**Aurelio VERTIZ**

I. URTEMUGA

Labainen, 2005eko abenduaren 1ean hil zen

*Atautxi,*
*orain urte bat*
*joan zinen*
*gure ondotik.*
*Beti gogoan zaitugu.*

ZURE BILOBAK

TXIRRINDULARITZA

# Ziklokros denboraldiari ekin dio Asier Apezetxea aranztarrak

Berako Katea-Bike taldearen laguntza izanen du

Aitor AROTZENA

Asier Apezetxea Iparragirre txirrindulari aranztarrak denboraldi bikaina egin du mendi bizikletan. Euskal Herriko txapeldun izan zen, Vasco-Navarro zirkuitoan ere garaile izan da eta Euskadiko Openean eta bertze hainbat probetan punta-puntan ibili da Conor-Saltokiko txirrindularia. Orain, negu sasoiari begira ziklokrosean probatzeko intentzioa du. Berako Katea-Bike dendaren laguntza izan du eta konpetiziorako bi bizikleta dotore prestatu dizkio Joxemi Irigoien nagusiak.




ARGAZKIA: AITOR A.

**Asier Apezetxea eta Joxemi Irigoien, Katea-Bikeko nagusia, ziklokros denboraldian aranztarrak erabiliko duen bi bizikletetako baten gibelean.**

Mendi-bizikletaren aldean, komunikabideen aldetik segida gehiago du ziklokrosak. Lohian ere ongi moldatzen dela kontuan hartuz, probatzeko erabakia hartu du Asier Apezetxeak. Lehenbiziko proba asteburu honetan egitekoa zuen Arabako Amezaga de Zuian.

Aranztarrak aipatu digunez, bizikleta ezberdina erabiltzen da ziklokrosean, errepidearen eta mendi-bizikletaren artekoa. *«Conor taldean hori lortzea ezinezkoa nuen, Conor markak ez duelakoz ziklokroseko bizikletarik eta Katea Bikeko nagusiarekin solastu nuen, lehengo urtean mendi bizikletarako ere laguntza eman zidalako. Ideia gustatu zitzaion, telebistan ziklokrosa gehiago ikusten delako eta berari ere komeni zaiolako eta aurten mendi bizikletan maila polita erakutsi dudanez, laguntza ematea erabaki du».*

### Emaitzen araberako helburuak

Mendi bizikletan hain maila ona eman eta gero, ziklokrosean nola moldatuko den ez daki Apezetxeak: *«Nere asmoa lehenbiziko probatzea da, ea teknika eta bizikletak aldatzen ongi hartzen dudan. Orain arteko probak Unai Yusek irabazi ditu eta hor badira bertze txirrindulari batzuk nerekin ibili direnak mendi bizikletan eta lehenbiziko karreratan ikusi nahi dut horien inguruan ibiltzen ahal naizen ziklokrosean. Ez dut helburu zehatzik jarri nahi, gero desilusiorik ez hartzeko. Hasieran probatuko dut eta emaitzen arabera, helburu bat edo bertze jarriko dut».*

Bizikletak ezberdinak izateaz gain, bertzelako alderik ere bada mendi bizikleta eta ziklokosaren artean. Hori bai, bietan pedalei eragitea nahitaezkoa da. *«Ziklokrosean lasterketak motzagoak dira* –dio Asierrek– *Mendi bizikletan ordu terdi eta bi ordu arteko probak dira eta ziklokrosean ordubetekoak dira. Esplosibidade berdintsua edo igual gehiago behar da ziklokrosean. Hemen ere zirkuito bati itzuliak eman behar zaizkio, baina Euskal Herriko berezitasuna lohia da. Lasterka ibiltzeak ere garrantzia izaten ahal du eta teknika behar da, bizikletatik jausteko, bizikleta bizkar gainean hartzeko… Bertzela ez da hainbertze ezberdintasunik».*

Egutegiari dagokionez, Euskal Herriko proba guziak eta Espainiako bat edo bertze egin nahi lituzte Apezetxeak, urtarril bukaera edo otsail hasiera arte. Igorreko ziklokros proba famatuan ere gustora parte hartuko luke Arantzakoak, baina Munduko txapelketako proba da eta parte hartzeko puntuak pilatu behar dira aitzinetik. *«Orain arte ez dut probarik egin eta ez dakit posible izanen dudan ateratzea».*

## FLASH

### *Aimar Irigoien kintopeko txapeldun*

Euskal Herriko kintopeko harrijasotzaile txapelketa ere erabaki zen Doneztebeko ferietako jaialdian. Txapela irabazteko Aimar Irigoien errezildarra zen faborito nagusia eta ez zuen inolako trabarik izan helburu hori lortzeko. Harrijasotzaile bakoitzak 100 kiloko zilindro zaharra eta kubikoa zituen lanerako, eta bakoitzarekin hiruna minutuko txandak zituen. Irigoien izan zen txapeldun 58 jasoaldirekin, iaz baino bat gehiago. Agirrek 46 eman zituen, Telleria III.ak 39 eta Uriartek 35.

### *Lesakako XI. Rallysprint Auto igoera*

Eguzki-Sport eskuderiak antolatutako Lesakako XI. Rallysprint autoigoera jokatu zen azaroaren 18an. Guzira 57 auto gidarik parte hartu zuten. Ramon Apalantza gipuzkoarra (Mitsubishi) nagusitu zen. Lau txandak egiteko 25 minutu, 48 segundu eta 20 zentesima behar izan zituen. Bigarren postua, Alberto Garrazarentzat izan zen (Seat Leon). Jesus Barrenak (Mitsubishi) osatu zuen podiuma. Arreko gidariak Igor semea izan zuen kopiloto eta Nafarroako gidari onenaren saria ere eskuratu zuen.

### *Munduko aizkolari azkarrena*

Tolosan azaroaren 12an jokatutako txapelketan Larretxea nagusitu zen. Finala ia galduta zuenean, O'Toole australiarrari aizkora kateatu zitzaion eta aranztarrak ez zuen aukera galdu.

HERRI KIROLA

# Jon Rekondok irabazi du bigarren mailako aizkolari txapelketa

Leitzarra jaun eta jabe izan zen Donezteben jokatutako finalean

A.A.

Jon Rekondo aizkolari leitzarrak irabazi zuen azaroaren 17an Donezteben Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala. Hasieran bortz aizkolarik parte hartu beharra zuten, baina Luis Mari Belarrak, bronkitiak jota, ez zuen aizkoran aritzerik izan.

Gauzak honela, Rekondo leitzarrarekin batera, Beintza-Labaiengo Xabier Mindegia, Doneztebeko Juan Telletxea eta Altsasuko David Amillano aritu ziren. Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu behar izan zuen.

Jon Rekondo zen faboritoa, baina aldi berean, bera zen finaleko gazteena ere, 21 urterekin. Esperientzia ezak bere kontra joka zezakeen, baina ez zen halakorik gertatu. Lehen enborretik aitzinetik jarri zen leitzarra eta jaun eta jabe izan zen bukaera arte. Azkenean, 18 minututan akautu zituen lanak. Bertze postuak ere nahiko abudo erabaki ziren. Hasieran, Xabier Mindegia Rekondotik hurbil ibili zen, baina oinbikoan adarra atera eta hortxe agortu zitzaizkion Beintza-Labaiengoari leitzarra harrapatzeko itxaropenak. Dena den, bigarren postua ez zuen inoiz arriskuan ikusi eta 19 minutu eta 41 segundutan akitu zuen, txapeldunak baino minutu eta 41 segundu gehiagotan. Hirugarren postua ere nahiko garbi finkatu zen haseratik. Amillanok lan ona egin zuen eta 21 minutu eta 25 segundu behar izan zituen. Juan Telletxea doneztebarra izan zen azkena eta 24 minutu eta 13 segundutan egin zuen lana.

Jon Rekondok, bigarren mailako txapela irabazteaz gain, heldu den urtean lehen mailan aritzeko eskubidea ere irabazi zuen.



Argazkia: Aitor A.

**Jon Rekondo leitzarra pozik, Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketa irabazi ondotik.**

| | 54 | 60 | 72 | 60 | 54 |
|---|---|---|---|---|---|
| **1. Jon REKONDO** | **1'41"** | **4'38"** | **10'13"** | **14'24"** | **18'00"** |
| 2. Xabier MINDEGIA | 1'55" | 5'10" | 11'49" | 16'11" | 19'41" |
| 3. David AMILLANO | 2'03" | 5'57" | 13'00" | 17'41" | 21'25" |
| 4. Juan TELLETXEA | 2'17" | 6'54" | 14'50" | 20'00" | 24'13" |

## Jon REKONDO *Nafarroako 2. mailako txapelduna*



## *"Uste baino errezago aurrea hartu eta abantaila baliatu dut txapela lortzeko"*

**Hasi eta buka aurretik izan zara...**

Bai, uste baino askoz errazago aurrea hartu dut eta abantaila hori baliatuta jantzi dut txapela. Lehengo urtean ere ni nintzen faborito, baina hirugarren bukatu nuen.

**Heldu den urtean, lehen mailan aritu beharko duzu...**

Hor aizkolari handiak daude, Larretxea, Nazabal, Mindegia... Ez dakit zer egingo dugun, baina saiatuko gara.

**Abenduaren 17ko apostuari begira, baduzu faboritorik?**

Biak aizkolari handiak dira, baina Mindegiak sasoi ikaragarria du.

## Mendeko apostua eginen dute Mindegiak eta Olasagatik

A.A.

Mindegia eta Olasagastik apostua adostu dute. Bi aizkolarien arteko desafioa abenduaren 17an eginen da Tolosako zezen-plazan eguerdiko 12:30ean. Bakoitzak 24 kana-erdi moztu beharko ditu eta biek 18.000 euro jokoan emanen dituzte. Sarreren irabaziekin erdi bana eginen dute, eta egurrarekin gauza bera.

Mindegiak, Larretxea eta Nazabal ez ezik, edozeini bota zion desafioa, baina lehen hitzordura ez zen inor agertu. Olasagastik desafioa bota zuen baina 36.000 euro jokatuz. Nafarroako txapeldunarentzat 36.000 euro gehiegi zen.

Dena den, Mindegiak ez zuen etsi, eta hirugarren hitzordua egin zuten azaroaren 6an. Azkenean bi aldeak ados jarri ziren, saria 18.000 eurokoa izanen da, sarreren irabaziak erdibana banatuko dituzte, eta egurra bien artean ekarriko dute eta plazan jarriko. Abenduaren 17an jokatuko den desafioak ikusmina handia sortu beharko luke aizkora zaleen artean, alde batetik Nafarroako txapelduna eta bertzaldetik Gipuzkoako txapelduna neurtuko baitira.

# AGENDA egunez egun

## ERAKUSKETAK

### AMAIUR

**Azaroan eta abenduan** Juan Gorriti eskulturgilearen «Gure basoak» erakusketa serorategian. Zabalik asteburuetan.

### ELIZONDO

**Abenduaren 14tik urtarrilaren 9 artio** Rafael Ubaniren pintura erakusketa Arizkunenean.

## SOLASALDIAK

### BERA

**Abenduaren 1ean** Frankismoaren esklaboak (F.Mendiola) eta Gerraostea Baztanen (Iker Frias) solasaldiak Jamotenean 18:30ean, Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatua.

### ELIZONDO

**Abenduaren 5ean** «Testamentuak eta herentziak» solasaldia eskainiko du Javier Unzeta jabetza-erregistratzailea eta Accion Familiar taldeko kideak Arizkunenean 18:30ean.

### LESAKA

**Abenduaren 14ean** «Ligatzearen zientzia» solasaldia 19:30ean liburutegian. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatua.

## BERTSO SAIOAK

### BERA

**Abenduaren 3an** bertso-saioa Kultur Etxean 19:00etan. Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu, Xabier Silveira eta Julen Zelaieta. Gai-jartzailea: Manolo Arozena.

## FERIAK

### ELIZONDO

**Abenduaren 9an** Baztango artisau produktuen feria Merkatu Plazan 10:00etatik 14:00etara.



## TELEBISTAKO TXOKOA



EGUBERRIAK BAINO LEHEN

# Igantzi eta Iturengo Kultur Egunak ekitaldiz beteak

Lesaka eta Goizuetako feriekin bukatu da udazkeneko feria eta azoka denboraldia, baina Eguberriak baino lehen izanen da gure herrietan kulturarekin lotutako ekitaldirik. Igantziko Kultur Egunak, errate baterako, abenduaren 7tik 9ra eginen dira. Orain arte, artzaintzarekin edo eskulanekin zerikusia zuten erakusketak egin dituzte eta aurten «Igantziarrak atzerrian» gaia aukeratu dute. Horretaz gain, Kukubiltxo antzerki taldearen emanaldia eta «Nolako Igantzi nahi dugu?» gaiari buruzko mahaingurua izanen dira, hirigintza ereduari buruz solasteko. Patata-tortila lehiaketa, bertso-poteoak eta haurrentzako joku tradizionalek osatuko dute egitarau zabala.

**ITURENGO KULTUR EGUNAK, ABENDUAREN 1ETIK 3RA**

Iturengo Ibilntza Kultur taldeak ere Kultur Egunak antolatu ditu aurten, abenduaren 1etik 3ra. Ortziral arratsean talo jatea eta dantza orientalak ikasteko aukera izanen da. Larunbatean, batez ere haurrei zuzendutako ekitaldiak izanen dira, baina bertso afaria ere izanen da Arzallus eta Elortzarekin eta igandean Ansa ahizpek emanaldia eskainiko dute. Guzi honen berri, ttipi-ttapa telebistan.

## DISKAK




*Lurra eta maitasuna*

**Pantxoa eta Peio**

*ELKAR, 2006*

Gure kantagintza ez ezik, gure herriko historiaren azken 40 urteak ulertzeko garaian funtsezkoak ditugu Pantxoa Carrere eta Peio Ospital. Lapurtar bikote honen zortzigarren disko honetan, Iparraldeko inspirazioan oinarriturik, kantu berriak oparitzen dizkigute, garbiak, emozioz eta kilimaz beteak. Lurra eta maitasuna dira gai nagusiak, bizitzan bezala, eta tematika eterno horren inguruan disko garden eta benetan gustagarria burutu dute. Bakea ere kantagai dute bi abestietan, *«bakea lortzea egunerokogerra baita»*. Azkaingo eta Ezpeletako kantariekin batera, emakume baten ahotsa ere entzuten ahal da *Nere maitia, jeiki ta jeiki kantuan*, Kattalin Indabururena. Alos Quartet soka-laukoteak eta Hendaiako Gaztelu Zahar abesbatzak ere parte hartu dute «Lurra eta maitasuna» diskan.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Azaroaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 35,00 € (+2,00)

**Zerri gizena**
0,955 € kiloa. (+0,010)

**Zerramak:**
0,460 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,86 (+0,03)
**1.koa** 3,61 (+0,03)
**2.koa** 3,41 (+0,03)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,98 (+0,03)
**1.koa** 3,73 (+0,03)
**2.koa** 3,50 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen diren aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 258,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 170,00 (=)
idixkoak 195,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 6,80/7,50
8-10 kilokoak: 5,10 /5,80

## JAKIN BEHARREKOAK

# Autoen aseguru-saria heldu den urterako jaustea eskatu du Irachek

### Istripu kopuruaren jautsiera somatu behar dute kontsumitzaileek

Hildakoak eragiten dituzten istripuen jautsiera nabarmena erakusten dute estatistikek azken hilabeteetan, puntukako karneta indarrean jarri zenetik batez ere. Urte honetako lehenbiziko zortzi hilabeteetan, Espainian trafiko istripuetan hildakoen kopurua %8,5ean jautsi da 2005eko epe berarekin konparatuz. Datuak puntukako karneta ezarri zenetik konparatzen baditugu, uztaila eta abuztuan alegia, hilkortasunaren jautsiera %20koa izan da. Nafarroan datuak baikorragoak dira oraindik, lehendabiziko hamar hilabeteetan %39,5a jautsi baita.



**Istripu kopurua murrizten bada, aseguru-etxeen irabaziak handiagoak dira, kalteordainetan ordaindu behar dituzten kopuruak ttikitzen diren neurrian.**

Istripuen jautsiera hau, hartutako prebentzio neurriei esker izan da, errepideak hobetzen direlako, puntukako karneta indarrean sartu delako eta gidariek zuhurtasun eta sentsibilitate gehiagorekin hartzen dutelako bolantea.

Irache Kontsumitzaile elkartearen ustez, emaitza hauek joera berarekin segitzen badute, istripuen jautsiera hau kontsumitzaileek beraien autoaren aseguruaren ordainketan nabaritu behar dute eta urtero ordaindu behar duten sariaren jautsieran isladatu behar da. Jakina, istripu kopurua murrizten bada, aseguru-etxeen irabaziak handiagoak dira, kalteordainetan ordaindu behar dituzten kopuruak ttikitzen diren neurrian. Irache elkartearen ustez, irabazi hauek aseguratuei ailegatu behar zaizkie, tarifa hobeekin eta deskontuekin. Aseguru konpainiaren batek jakinarazi du dagoeneko aseguruak merketuko dituela, istripu kopuru ttikiago honen ondorioz.

## LIBURUAK



*Ez dadila eguzkia sartu*

**Xabier eta Martin ETXEBERRIA**

*ELKAR, 2006*

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eraman zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloiaren ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublika defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europan barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekotan, lubakiak bezainbat. Gertaera horietan oinarrituz eta Kepa Areso futbolari ordiziarra protagonista bihurtuz, nobela idatzi dute Xabier eta Martin Etxeberriak. Historiaren gainetik gailentzen den istorioa, hari poliziala eta maitasunaren korapiloak ere falta ez dituena, irakurleari jakin-mina piztu eta zer pentsatua eman asmoz. Joseba Jaka V. Literatura bekaren laguntzaz kaleratu dute liburua.

# AGENDA egunez egun

## MENDI ATERALDIAK

### BAZTAN

**Abenduaren 3an** Baigorrimuinoara ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

**Abenduaren 10ean** Oteixonera ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

### SUNBILLA

**Abenduaren 16an** Unanutik Beriainera ateraldia antolatu du Ulibeltzak Mendi Taldeak.

### ZUGARRAMURDI

**Abenduaren 10ean** Erroten Itzulia antolatu du Abxuria mendi taldeak.

## ZINE EMANALDIAK

### ELIZONDO

**Abenduaren 6an** «Sonia» eta «Le pont sur la drina» filmeen emanaldia 18:30ean Jorge Oteiza Museo Etnografikoan.

**Abenduaren 8an** «Melodias» filmearen emanaldia 18:30ean Jorge Oteiza Museo Etnografikoan.

## KONTZERTUAK

### BERA

**Abenduaren 3an** Ereintza abesbatza Kultur Etxean 13:00etan. Nafarroako Gobernuak antolatua.

### LEKAROZ

**Abenduaren 3an** Barañaingo Abesbatzaren ahots kontzertua parrokian 11:30ean. Nafarroako Gobernuak antolatua, Nafarroaren Eguna ospatzeko.

### LESAKA

**Abenduaren 3an** Leitzako abesbatza pleno aretoan 13:00etan. Nafarroako Gobernuak antolatua.

### IRURITA

**Abenduaren 16an** Udal Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua parrokian 18:30ean.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 6 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero iragarkiarekin). 6 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304625 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak



**ADOS**

• **ELIZONDO.**
- Apartamentu eta pisuak salgai.
- VPO pisuak salgai.
- Terreno rustikoak eta urbanoak salgai.
• **ARANTZA.**
- Borda eta etxeak salgai.
- Baserria bere lurrekin errentan.
• **BERA.**
- Pisua salgai.
• **LESAKA-IGANTZI.**
- Terrenoak salgai.
• **DONEZTEBE.**
- Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai.
- 10 minutura: baserria, borda eta lurrarekin salgai.
- Etxeak eta bordak salgai.
• **BAZTAN.**
- Bordak, baserriak, etxeak eta terrenoak salgai.
• **PROMOZIO BERRIAK:**
• **IGANTZI.** AZKEN pisu eta apartamentua trasteroarekin eta aparkalekuarekin salgai.
INFORMA ZAITEZ!
**948 451 841 / 948580705**
**www.ados-inmobiliaria.com**

**ETXEBIZITZAK**

### 101 Saldu

**ELIZONDO.** 5 urteko pisua salgai, 90 m², bajera eta trasteroarekin. 132.000 euro. ☎ 677 613734 (16:00etatik aitzinera).

**IGANTZI.** 90 m²ko pisua salgai. Bizitzera sartzeko prest. ☎ 696 776295 (16:00etatik aitzinera).

**ELGORRIAGA.** 90 m²ko pisua salgai. Dena berritua. Balneario aldera bistak. ☎ 659 612608 (16:00etatik aitzinera).

**BULDAIN INMOBILIARIA**
LEITZA: *2 pisu berri eta 2. eskuko 7 pisu salgai. ADI! Prezio berriak.*
✆ 948 510 534 bulegoa

**ETXEBIZITZAK**

### 103 Errentan eman

**IRUÑA.** Apartamentua errentan emateko. ☎ 606 172156.

**ELGORRIAGA.** Pisua errentan ematen da, mobleztatua. ☎ 686 336169.

**DONEZTEBE.** Pisua errentan emateko. Berria, kalefakzioarekin, 2 logela. ☎ 670 296423.

**GARAJEAK/LOKALAK**

### 107 Saldu

**GIPUZKOA.** Goierri aldean etxebizitza bezala egokitutako bajera salgai, edozein jarduerarako egokia Beasain erdialdean. Ekonomikoa. ☎ 686 062963.

**SUNBILLA.** 44 m²ko bajera salgai, dutxa, komuna, gasa, fregadera, solairuartekoa. ☎ 669 774149.

**Baztango** promoción inmobiliaria

**SALMENTA:**
BERA: 3 etxebizitza berri herrigunean. Igogailua.
BERA: 2.155 m²ko lur eraikigarria.
BERA: 3.188 m²ko lur eremua.
ARANTZA: (Beratik 10 km.ra) 76 m²ko pisua, 3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Trastelekua. Baratzea. Bista onak.
DONEZTEBE: Bi familiako etxebizitzan, 72 m²ko pisua eta bajera. Moldatu behar da.
BAZTAN: Moldatutako borda, 68 m². 6.500 metroko lur eremuarekin. Hegoaldera begira.

**ALOKAIRUA:**
BERA: Pabilioi industriala, 173 m². 5,85eko altuera.
BERA: 95 metroko lokal komertziala, ixkina egiten duena. Kearentzat aterabidea.

**EROSKETA:**
BORTZIRIAK: Herriko etxe osoa, edozein neurrikoa.

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tel/Fax 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

**GARAJEAK/LOKALAK**

### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan emateko, Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak uzteko. ☎ 948 630881.

**LURRAK/ORUBEAK**

### 113 Erosi

**LESAKA.** 500-700 metro inguruko lur eremua erosi edo errentan hartuko nuke. Bidearekin ahal bada. ☎ 657 708856.

**LANA**

### 301 Eskariak

**Emakumea** eskaintzen da etxeko lanak egiteko edota haurrak zaintzeko. Esperientziarekin. Bakarrik Beran. ☎ 654 027179.

**Emakumea** eskaintzen da interna moduan lan egiteko, etxeko lanetan, xaharrak zaintzen... Baztan-Bidasoan. ☎ 638 552584.

**Emakume euskalduna** eskaintzen da garbiketarako edo edozein lanetarako. ☎ 635 204339 (19:00etatik 21:00etara).

**Emakumea** eskaintzen da adineko jendea zaintzen edota etxeko lanak egiteko. Euskalduna eta esperientzia handiarekin. ☎ 626 088309.

**LANA**

### 302 Eskaintzak

**OITZ.** Posadan langile bat behar da, jai egunetan eta asteburuetan fregaderan aritzeko. ☎ 948 451951.

**BERA.** Ansonea jatetxean zerbitzaria behar da. ☎ 948 631155.

**Langile bat** behar da Arin aseguru-bulegoan lan egiteko. ☎ 948 450266 (bulego orduetan).

**BERA.** Bideoklubean soziolangile bat behar da, negozioa erosteko aukerarekin. ☎ 635 712745.

**ETXALAR.** Zurgindegi batean lanean aritzeko langilea behar da. ☎ 659 093005.

**BORDA**
bordaepladur@telefonica.net
Pladur lanak
ERREFORMAK
DEKORAZIOA
SABAI MODULARRAK
ISOLAMENDUAK:
sua · zarata · hezetasuna
Tel-Faxa: 948 637 546
Mug: 609 477 277

**ROSA BEZUNKE**
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

**MOTORRA**

### 501 Salerosketak

**BMW 525 D** 163 cvko autoa salgai, 2001eko modeloa, beltza. Prezioa: 15.000 euro transferitua. ☎ 676 104993.

**Suzuki Santana SJ10** autoa salgai, egoera oso onean. Beti garajean, ballesta berriak, engantxearekin. ☎ 646 986448.

**Renault 19** autoa salgai, 1.9 Diesela, NA-2865-AK, egoera oso onean eta ongi zaindua. ☎ 600 389922.

**Peugeot 307 HDI** 2.0 90cv SP autoa salgai, 37.000 km. Oso berria eta ondo zainduta. CWZ matrikuladuna. 10.900 euo. ☎ 669 413790.

**Renault Megane 1.9 D** autoa salgai. Egoera onean. ☎ 948 510587-646 003662.

**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:** Mitsubishi DID 3-5 ans, Vitara 3-5 ans TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ans, Grand Vitara 3 ateko gasolina, Opel Zafira, Galloper 5 ans, Volkswagen Polo, Terrano II, Ford Fiesta, Opel Frontera eta Mazda 3.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**TALLERES SANTESTEBAN**
✆ 948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIEN ESKAINTZA ZABALA (6-12 HILABETEKOAK)**
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, MEGANE GRAND TOUR, SCENIC, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE.

**BIGARREN ESKUKO KOTXEAK**
OPEL ASTRA 2.0, MEGANE COUPE 1.9TDI, OPEL VECTRA CARAVAN 1.6, CHRYSLER VOYAGER 2.0 7 PLAZAKOA, VOLKSWAGEN GOLF 1.9 DTI, RENAULT SCENIC 1.9 DT, HYUNDAI ATOS.

## IGANTZIko HERRIKO ETXEA

**BIRZATIKETA PROIEKTUA ETA HIRIGINTZA HITZARMENA, PROMOCIONES LINDUTX BAZTÁN S.L. ENPRESAK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.**

Igantziko Udalbatzak, 2006ko azaroaren 10ean egindako bileran, aho batez, honako hau erabaki zuen:

1.- Promociones Lindutx Baztán S.L. enpresak sustatutako 1. poligonoko 9. eta 10. lur zatietako birzatiketa proiektua eta hirigintzako hitzarmena hasiera batez onartzea.

2.-Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitateko egunkarietan paratuta, nahi duenak aztertu eta egoki juzgatzen dituen alegazio edo oharrak aurkez ditzan, aipatutako epean.

Jendaurreko aldian inork ez badu alegaziorik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, bidezko bada hori egitea.

Igantzi, 2006ko azaroaren 21ean.
Alkatea, Jesús María Begino Garro.

## IGANTZIko HERRIKO ETXEA

**URBANIZAZIO PROIEKTUA, PROMOCIONES LINDUTX BAZTÁN S.L. ENPRESAK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA**

Igantziko Udalbatzak, 2006ko azaroaren 10ean egindako bileran, aho batez, honako hau erabaki zuen:

1.- Promociones Lindutx Baztán S.L. enpresak sustatutako 1. poligonoko 9. eta 10. lur zatietako urbanizazio proiektua hasiera batez onartzea. Proiektua Jabier Lekuona Errandonea arkitektoak egina da eta 2006ko irailaren 27an bisatua.

2.-Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitateko egunkarietan paratuta, nahi duenak aztertu eta egoki juzgatzen dituen alegazio edo oharrak aurkez ditzan, aipatutako epean.

Jendaurreko aldian inork ez badu alegaziorik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, bidezko bada hori egitea. .

Igantzi, 2006ko azaroaren 21ean
Alkatea, Jesús María Begino Garro.

**Nissan Almera** 2.0 diesela salgai. Zortzi urtekoa. 3.000 euro. ☎ 948 615029 (gauetan).

**Ford Mondeo** familiarra salgai. Egoera onean. 2.500 euro. ☎ 616 243530.

**Lada Niva** salgai, SS-AJ matrikuladuna. Merke. ☎ 637 466110 (Xabi).

**ANIMALIAK**

### 602 Salerosketak

**Sabueso** arrazako zakurkumea salgai. Arra eta 4 hilabetekoa. ☎ 655 743991.

**20 ardien** deretxoak salgai. ☎ 948 634077.

**20 ardien** deretxoak salgai. ☎ 948 634034.

**DENETARIK**

### 701 Galdu-aurkituak

**LESAKA.** Bereau inguruan Orbea markako mendi-bizikleta agertu da. ☎ 687 871431.

**LESAKA.** Zakur bat galduta dabil Otsango aldean. Pintoa da eta badu lepoko beltza.

**SUNBILLA.** Trenbidean emakumearen betaurrekoak topatu dira. ☎ 948 635458.

**DENETARIK**

### 702 Salerosketak

**Garai bateko tresnak**, 200 urte baino gehiagokoak salgai (dolarea, matxaka egurrezko mandibularekin, errotarria, goldea…). Jardinerako apaingarriak edo lanerako ere jarri daitezkenak. ☎ 948 637210.

**Akordeoi italiarra** salgai, Guerrini markakoa, pianokoa, 120 baxu, 3 ahots kantuan. Gutti erabilia eta afinatu berria. ☎ 618 067973.

**Garraio-txartela** saldu edo errentan emanen nuke. ☎ 678 608602.

**Kalefakzio-kaldera** salgai, Roca markakoa, hagitz merkea. Ikatz-egurrekoa, gasoil erretzailea ere jartzen ahal zaio. ☎ 687 424913.

**Masajeko kamilla** bat salgai. ☎ 626 088309.

**Muebles de la Abuela**ko alazena bat saltzen da. Goiko ateak kristalekin eta behekoak egurrezkoak. Neurriak: 110x44x182 cm. Prezioa: 550 euro. ☎ 626 936480.

luzclinic
www.luzclinic.com
KLINIKA ANBULATORIOA BEGIETAKO MIKROKIRURGIAN
OFTALMOLOGIA ZENTRUA




Oftalmologiaren beste ikuspegi bat
1986 Begietako mikrokirurgia osoa ospitalizatu gabe
1990 Kirurgia errefraktagarria Laser Excimer-arekin
1993 Anestesia topikoaren erabilera begi-lanbroen kirurgian
2001 Ikusmen nekatuaren kirurgia inplante egokiorrak erabiliz
2004 Begi-lanbroen kirurgia mikro-ebakidurekin
2005 Laser tratamendu pertsonalizatua Topolyzer-ekin
2006 Malko-bideen tratamendua mikro-endoskopiarekin

Eskiroz, 31 · 8 solairuartea · 31007 IRUÑA · Tfnoa: 948 199 999
Juan de la Cruz, 5 · TEKNIA Zentrua · 20300 IRUN · Tfnoa: 943 660 150
Ferme Dai Baita, 6 · ZA Layatz II · 64500 DONIBANE LOHIZUNE · Tfnoa: (0033) 559 51 84 00(FR) – 902 209 299 (SP)
IRUÑA DONIBANE LOHIZUNE IRUN


AMAIUR
Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE • ☎ 948 450400
SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA
Modelo berriak: rustikoak, modernoak eta praktikoak • Entzimerak, silestone, granito, corian...
Etxetresna nazionalak eta alemanak • PROIEKTU eta ERREFORMAK
vegasa


BERTSO SAIOA
MADDALEN LUJANBIO
JESU Mª IRAZU
XABIER SILVEIRA
JULEN ZELAIETA
Gai jartzailea:
MANOLO AROZENA
abenduaren 3an
arratsaldeko 7:00etan
BERAko Kultur Etxean
Sarrera: 5€
Antolatzailea:
Berako Euskara Batzordea
Laguntzaileak:

# Lur

www.lurelizondo.com

abenduak2
## JOXEINAETXEBERRIA
01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

abenduak7
## LUR D JOTAK + CACIQUE BESTA
01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

abenduak9
## POG MO THON + eKo4
23:30 8€ aurretik 10€ takillan

abenduak16
## LA COMUNIDAD DE LA SALSA
01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

abenduak23
## JALISKOBAND
10 URTE EGURRA EMATEN

ETA NIKO ETXART, TAPIA ETA LETURIA, TXUTXIN IBAÑEZ, JESUS TAPIZ...
23:30 8€ aurretik 10€ takillan

+ J&B BESTA

abenduak25
## KAOTIKO
00:00 9€ aurretik 11€ takillan

Elizondo(Nafarroa)